



ARGIA

PRESO ERREPUBLIKARRAK FRANKISMOAN

Euskal trenbideak eraiki zituzten esklaboen memoria

24-29. orriak

Langileak Bermeo eta Sukarrieta arteko tunel bat zulatzen.

#2.765 | 2022/02/06 | 4,00 €



**Ez da COVID-19rik
arma saltzaileak
frenatuko dituenik**

12 | NET HURBIL



**"Nire bertsioak
Etxepareren aire eta
estilo osoa ditu"**

14 | XABIER AMURIZA



**"Indarkeria obstetrikoa
bere izenez
izendatu behar da"**

52 | LAIA VIDAL

TXORI URDINAK

Espetxearen erretratu bat
Santi Cobos presoaren ahotik

Zigor Olabarria Oleaga

16€

+ 4€

bidalketa gastuak

40€-tik gorako
erosketetan,
bidalketa doan.

azoka.argia.eus

943 37 15 45

Santi Cobosek (Leon, Gaztela, 1968) bizitzaren erdia eman du preso. Pairatu ditu torturak, jipoiak, muturreko isolamendua, FIES sailkapena; burutu ditu hamaika protesta eta ihesaldi saiakera, bahitu ditu funtzionarioak eta poliziak. Bidean, Euskal Herriarekin adiskidetu da. Gordinkeria, umorea, gorrotoa, samurtasuna, hausnarketa nahasten dira Santiren lekukotasunean; bere bizipenez harago, espetxe-sistema ezagutzeko kontakizuna da berea.

212 orrialde

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN
- 09 | HUMANITATEAREN
UNE GORENAK
- 09 | EZ HANKA EZ BURU

AZALEKO ARGAZKIA:
BUESA FAMILIAREN ARTXIBOA

Iritziak

- 19 | IKER IRAOLA
- 20 | BEA SALABERRI
- 21 | KIMETZ ARANA
- 21 | CASTILLO SUÁREZ
- 22 | AMANCAY GAZTAÑAGA

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 40 | DENBORAREN MAKINA
- 41 | ARGIA KOMUNITATEA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGÍ-KONTRA:
LAIA VIDAL
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU



34 | EMAKUME MIGRATZAILEEK ZORRA BIZKARREAN

Miren Osak ondutako erreportajeak azaltzen du zaintzan dabilen emakume migratzaileen testigantzak bilduz Silvia Carrizok egin duen ikerketa. Zorra du gai lan honek: zor ekonomikoa eta emozionala. Eta jatorriz Euskal Herrikoak diren pertsonak interpetatzen ditu, bertakoen bizi erdua baita migratu duten emakumeen zorraren eragile.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

COVID-19ak frenatu du mundu osoko ekonomien hazkunde, ez ordea arma saltzaile handiena

Pello Zubiria

14 | PERTSONAIA | XABIER AMURIZA

“Gehien harritzen nauen Etxepareren poema ‘Emazten favore’ izenekoa da”

Miel A. Elustondo

24 | HISTORIA | BURDINBIDEETAKO ESKLABOAK

Frankismoaren biktimek zabalduetako bideak

Ander Leon

30 | NAZIOARTEA

“Txinak aurrera egin eta modernizatu nahi du, eta ez mundua menpean hartu”

Gorka Quevedo / Alda aldizkaria

36 | EUSKARA | ALEX VADILLO

“Gasteiz Belarriprest hiria bihurtu behar genuke”

Asier Basurto

44 | KULTURA

Bueltan da Stromae

Danele Sarriugarte

47 | KULTURA | DAVID LLOYD GASTEIZEN

Maskara baino askoz gehiago

Gorka Bereziartua

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Lehendakaria

Onintza Irureta

Erredakzioa

Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizaguirre, Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Leire Artola, Mikel García, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administratzailea

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Olatz Korta, Pello Basurto

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa

komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta
interaktiboa

ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egileta aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



Déjà vu

Argazki hau zenbat aldiz dugu ikusi? 2002koa izan zitekeen, Prestigek isuritako 77.000 tona erregai astunak belztutako Galizako edo Euskal Herriko kostaldekoa. 20 urte geroago, gauzak ez dira larregi aldatu, antza. Baina lehen eta orain lezioa ondo ikasita dutenak, ordea, multinazionalak dira. "Hondartza garbitzen lagunduko dugu, asko sentitzen dugu, ez dugu berriro egingo". Eta kito, lan egitera berriz. Prestigerena ekaitzak eragin zuelako, eta tsunamiak Peruko Repsolena. Fini. Itsasoari, animaliei eta kostaldeari egindako kalte izugarria, garbiketaren dirutza, hondartza garbitzen duten langile eta boluntarioen osasuna... Horiek albo-kalteak dira. Txápapotearen ruleta makabroak seinalatuko duen hurrengoaren zain.



'Brandalism' ekintza bat Ertzaintzari eskainia

LANDER ARBELAITZ MITXELENA

Donostia publizitatez josteko darabil-tzaten zenbait markesina zabaldu eta publizitateak aldatu dituzte joan den asteburuan. Ez da lehen aldia. Orain-goan, herritarrak ertzain edo udaltzain izan daitezen Jaurlaritza eta Eudel egiten ari diren kanpainaren bestelako bertsioak paratu dituzte puntu ugarian, udaletxearen alboan dagoena –eta oso kontrolpean izan ohi dutena– barne. *Zatoz euskal poliziara* lelopean bi agente irribarretsu elkarri begira erakutsi beharrean, Ertzaintzak azken urteetan egin dituen operazio bortitzen argazkiak daramatzate.

Orduak egin dituzte jarrita kartel horietako ugari eta herritar asko seko harrituta geratu da iragarkiei begira, zer pentsatu jakin gabe bezala. Denok ikusi dugu Ertzaintzaren biolentzia, baina publizitatea egiteko bezain harro erakusten al du orain Eusko Jaurlaritzak? Egiazkoak ala gezurrezkoak ote dira?

Sarean pixka bat zabaldu denean, Ertzaintzaren Esan sindikatuak lehenik eta Jaurlaritzako Segurtasun sailburu Josu Erkorekak ondoren, milaka lagunengana heltzeko falta zuten bultzada eman diote kanpainari. Esanek gaztelania hutsean idatzitako komunikatuan “kanpaina koldar horren arduradunen aurka” egiteko eskatu du –kanpaina “oso zaindua” dela eta “gutxitan ikusten den kopiagintza maila” nabarmenduz–, eta Ernek astelehen goizean ere egileen aurka egiteko eskatu du, honek ere gaztelania hutsean.

ZERK ADIERAZTEN DU GORROTOA?

“Gorrotoa adierazten duten argazkiak. Iraganean ainguratuta jarraitzen dutenen argazkiak”. Horixe idatzi zuen Josu Erkorekak sare sozialetan, bi markesinetako argazkiak erakutsiz.

Argazki horietan ikusten dena, ordea, ez da iraganeko kontua. Ertzaintzak egingako operazioen argazki batzuk dira eta herritarrok azken urteotan hedabideetan ikusi ditugu. Hor manipulatorik ez da. Gainera, argazkietan ikusten diren jardura horietako asko Jaurlaritzak berak txalotuak dira. Horrez gain, gorrotoa zerk adierazten duen pixka bat zehaztu dezala galde diezaiokegu sailburuari. Imajinatzen dugu ez dela ari protesta baketsuan ari den herritarra jipoitzen duen agenteak senti dezakeen gorrotoaz. Irudi horiek besterik gabe erakusteak gorrotoa adierazten badu, prentsan ere argazki horiek erakusteak gorrotoa adierazten al duen galde geniezaioke.

Argazkietan ikusten dena, ordea, ez da iraganeko kontua. Ertzaintzak urteotan egingako operazioen argazkiak dira

Kartel hauek jarri dituzten herritarren aurka egingo dutela iragarri du Erkorekak. Hori esateko ez du egun onena hautatu, ordea. Egundorretan informatu baitu *Nai-zek* Jaurlaritzak Ernairen aurka irekitako kausa abuztuan artxibatu ziotela epaitegiek. “Egin zaitez artzain, ez ertzain” kanpainagatik, “gorroto delituak” egotzi nahi izan zizkieten gazte antolakundeari. Bide batez, gizartean gutxiengo zaurgarriak babesteko sortutako delitu izaera Poliziaren mesedetan erabiltzea eskuin muturraren estrategia da. Hala ere, ez du inolako biderik egin epaitegietan eta zail da irudikatzea oraingo honek egingo duenik.

Esaldi iraingarrikerik erabili gabe, Ertzaintzaren beste aurpegia erakutsi nahi izan duten ekintzaileak pozarren egongo dira, sei karteekin izan duten oihartzun zabala ikusita.

Esan dezakegu hasi dela Ertzaintzaren 40. urteurrena, *Brandalism* ekintza arrakastatsu batekin hasi ere. ●



HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Maitasunari gorazarre



ARITZ GALARRAGA

Bada hitz bat Maite Lopezek Safo aurkezteko etengabe erabiltzen duena: maitasuna. Adibidez, esateko: “Saforen poesia maitasun desiraren adierazpen paradigmaticotzat hartu izan da denboran zehar”; edo, are, “maitasunaz bakarrik aritzen ez dela eta gai politikoak jorratzen dituela”. Baina, orain konturatu naiz, hitz hori, maitasuna, ez nuen behin ere erabili liburu horri buruzko zutabea. Imaginatzen dut zergatik: fama txarra duelako, ezeroso egiten zaidalako, ez naizelako erabat ulertzera iristen. Hainbestetan hitz egiten da hartaz, ordea, literaturan, zineman, batez ere pop kantetan. Zertaz ari garen maitasunaz ari garenean, horra agian galdera. Raymond Carverren ipuin bildumak erantzun handirik ez du ematen –ez baita literaturaren zeregina, erantzunak ematea; eta erantzunak ematen baditu, zalantza daukat izan daitekeen literatura ona–, jo dut Alain Badiouengana, *Éloge de l'amour* izeneko lanera.

Alde batetik, legoke maitasunaren kontrako filosofia –sexuaren moztasun aringarritzat daukana, Schopenhauer eta–. Beste muturrean, maitasuna gehiegi goratzen duena –eramanez erlijioasunera, adibidez Kierkegaard–. Neroni kokatzen nintzen eszeptikoen artean –honetan ere bai, bistan da–; baina iradoki-korra egin zait Badiouk ematen dion zentzua: maitasunak eramaten zaitu zeure buruaz harago, eta proposatzen dizu mundua, zure bakartasunetik baino, biren artean esperimentatzea –berak dio bi, baina esan dezagun hiru, lau, nahi beste–. Alegia, nire bulkada soiletik haragoko mundu bat eraikitzea lekarke, eta, ondorioz, diferentzia zer den probatzea. Eraikuntza bat da, hartara, irauten duena, garaile ateratzen dena luzeki, batzuetan gogorki, espazioaren, munduaren, denboraren kontra. Uneoro jokatu behar da maitasuna, hori bai, uneoro landu, borrokatu, zaindu. Uneoro berrasmatu behar da, halaber; baina, zergatik ez, baita aldarrikatu ere tarteka. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



Heriotza

Mohamed El-Bachir jatorri aljeriarreko 17 urteko gaztearen hilotza aurkitu zuten joan den astean Ibaizabalén. Arratiako Harrera Sareak eta Galdakaoko Elkarlaguntza Sareak baieztatu dute Bizkaiko Foru Aldundiaren ardurapean zegoela. Kasua argitzeko eta adin txikikoen zaintza era arduratsuan egiteko eskatu diote Diputazioari.

Hegazti gripea

Hegaztiak hiltzea da Frantziako Gobernuak darabilen estrategia, hegazti gripearri aurre egiteko. Euskal Herriko Laborarien Batasunak ohartarazi du estrategia antzua dela eta etxalde txikiek ez dituztela kudeaketa txarraren ondorioak pairatu behar. “Etxaldean eta hazkuntzen industrializazioa gelditu behar da”.

Portugal

Alderdi Sozialistak gehiengo osoa lortu du Portugalgo hauteskundeetan. Antonio Costa lehen ministroaren PS alderdiak botoen %41,7 eskuratu du. Urrun geratu da PSD Alderdi Sozialdemokrata kontserbadorea (botoen %27,8). Nabarmen egin du gora eskuin muturrak: hirugarren indarra da Chega (botoen %7,2).

Mina



ULA IRURETAGOIENA

Bilboko Sabino Aranako aparkaleku-erakina itxi egingo da zazpi solairuko hotel bat egiteko. Donostiako Mirakontxako Bista Eder eraikina luxuzko hotel bat izateko berreraiki da. Groseko Pio X parrokiaren ortu eremua berregingo da hotela, jatetxea, supermerkatu bat eta lau solairuko parking bat eraikitzeke. Ondarretako ehun urteko villa bat berreraikitzen ari dira hotel bat instalatzeko. Ategorrietako Sorkunde Maria komentua hotela, aparkalekua eta supermerkatu bat egiteko eraberituko da. Itziarko Andre Mari etxea eraitsi eta hotel bat eraikiko dute.

Beste bat, beste behin.

Azken urteko albiste-segidak hiria-
ren norabide aldaketa bat kontatzen du. Hirietan hotel-inbestitze ereduaren zurrumurrua izurrite modura hedatu da merkatu higiezinan, hiriaren timoia noraezean dagoela probestuz eta hiri putre askoren jomuga bilakatu denean. Lokutorio kopurua mugatzeko araudi bat atera zen bezala, ez al da posible hotelekin berdina egitea?

Hiriaren paisaia betidanik aldatu da horrela, interes publikoaren eta etekin ekonomikoaren oreka zailean, bota eta berregin, eraikin batzuk joan eta beste batzuk etorri. Arkitektoentzako lana. Baina hiri askok pairatzen duten hotelen ordezkatzeko prozesuak nonbait ez du ilusiorik eragiten. Eraispn makinaren palak urteak dituen eraikin baten tripak husten dituen bitartean, hiri bera husten ari dela sentitzen dut. Eta sentsazioak ez du nostalgiarekin zerikusirik. Eraikin zaharraren ordezkatzeko arkitekturak ez du zertan arkitektura historikoa baino okerragoa izan, are historikoa ulertzeko aurrerapauso bat izan daiteke, zaharberritze operazioaren aukeran sinesten dut.

Baina beldur naiz, hiriaren harrapakaritzak arkitektura onerako lekuri ez duela. Asteburuko trolley-bisitariari berdin zaio paretek solidotasunik ez badute. Anfritioia izan nahi duen hotel-eraikinak ez du hiri ezagutzen, ez du hiriarekiko begirune edo maitasunik. Hiri bilakatu den engainuaren aliatua da. ●



“Naziei” kopiatzea ez da polita

AXIER LOPEZ

Nazi karnetak hemen eta han banatzeko kirolaren zalea ez naiz. Garaiotan oso erraz, errazegi, mintzo gara bestearen nazismoaz, faxismoaz, apartheidaz... Kasik termino horien atzean dagoen karga politiko handia ezustean uzteraino, norberaren iritziarekin bat ez datorren hori iraintzeko, deabruzeko, beste helbururik gabe. Baina, horrek ez du esan nahi, batzuetan, batzuei, hala deitu ezin zaientik. Adibidez, Espainiako ultraeskuinari. Adibidez, Voxeko buruzagiei.

Ezer berririk ez naizela esaten ari irudituko zaio bati baino gehiagori. Fatxa bati fatxa deitzea, kritika baino laudorio zaiolakoan. Baina kontua da ahalik eta botere politiko instituzional handiena eskuratu nahi duen neofaxismo horrek, antza, ez duela gustuko Hitler edo Mussoliniren lagunekin lotzea –Francok urtegiak eta errepideak egin zituen–. Areago perroflauta batek esan badu. Voxek Auzitegi Gorenera eraman zituen Podemoseko buru Ione Belarrak maiatzeko hauteskunde kanpaina esandako hitz batzuk: “Poztekoa da Voxek maskara kendu izana eta denen agerian naziak direla erakustea”. Bada, Gorenak berretsi du Voxekoei nazi deitzea ez dela gorroto delitua. Eta are interesgarriagoa den zerbait berretsi du epaiak: gorroto delituaren helburua ez da talde politiko bat babestea kritika publiko eta politikoaren aurrean, baizik eta baztertzeke edo erasoak jasotzeko arriskupean dauden kolektibo zaurgarriak zaintzea. Borreroak biktimaren larrua jantzi nahi izatea ohiko defentsa da, baina kolektibo baztertuen lekua norberarentzat aldarrikatzeak erridikulizatu eta banalizatzen ditu gorroto delitua eta kolektibo zaurgarrien babes beharra. Horregatik horrelako salaketa asko egin du Voxek. Baina, tamalez, ez dira bakarrik.

Zer pentsatu beharko genuke Auzitegi Nazionaleko epaile Ismael Morenok 2019ko Altsasuko Ospa Eguna gorroto delitutzat jo zuenean? Legearen babes osoa duten soldatapeko 75.000 kide armatuk kolektibo zaurgarria osatzen dutela? Eta Ertzaintzari kalean egindako kritikengatik, iazko maiatzean Jaurlaritzako eledun Josu Erkorekak ezker abertzalea “gorroto delitutik oso gertu zela” adierazi zuenean, zer? Garai horietan Ertzaintza herriz herri gazteak jipoitzen aritu zen pandemiaren aurkako murrizketen aitzakiapean. Kritikak jaso zituen, baita “PNV lotu txakurrak” moduko pintaketak ere. Horren aurrean, EAJk Voxen eredu bere egin eta, botereduna biktimatzat aurkeztuta, arrazakeria edo homofobiaren biktimen maila berean jarri nahi izan zuen Polizia; Ertzaintzaren sindikatu hooliganen txalo artean –Esan, Erne, Sipe, Euspel eta enparauak–.

Horregatik, horrelako epaien berri ematearekin batera ez dago soberan gauza bat gogoraraztea: EAJ ez da nazia, baina “naziei” kopiatzea ez da oso polita. ●



1.500

heriotza saihestu dituzte Nafarroan COVID-19aren kontrako txertoek, Osasun Publikoaren institutuaren arabera. Heriotza kopurua oraingoaren bikoitza izango litzatekeela dio txostenak, txertoaren kanpaina martxan jarri ez balitz.

241 milioi

txerto martxoan iraungiko dira, ikerketa baten arabera. Erresuma Batuko Airfinity datu analizatzaileak aurreikusi du Europar Batasunak eta G7ko estatuak COVID-19aren aurka erositako milioika txerto dosi xahutuko direla erabili aurretik.

1.000

ebakuntza gutxiago egin dituzte hilero Donostiako Ospitalean, pandemiaren 6. olatuak COVID-19a artatzera berbideratu dituelako baliabide asko. "Itxaron zerrrenda kirurgikoak okerrera egin du, baita patologia dituzten edo kronikoak diren gaixoen arretak ere", dio ospitaleko zuzendari medikuak.



"Horrela segituz, kostaldea metropoli erraldoi bilakatuko da"

ALAIN IRIART

Etxebizitzaren arazoaz mintzatu da irratian Hiriburuko auzapeza.

EUSKAL IRRATIAK (2022-01-25)

"ESKOLA JANTOKIEN PLEGUAK CATERING ENPRESA HANDIENTZAT PENTSATUTAKOAK DIRA"

EHIGE

Eusko Jaurlaritzak ikastetxeetako jantokietarako pleguak "enpresa handien interesen arabera egin beharrean, hezkuntza komunitatearen premien arabera" egiteko eskatu du Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkarteak.

2022-01-25

"Presoak bigarren graduan blokeatuta dituzte. Espetxe-politika normalizatua aplikatu izan balitz, preso horien herena baino gehiago beren etxeetan egongo zen"

SARE HERRITARRA

Espetxe politikaz gogoeta txostena aurkeztu du euskal presoek eskubideen aldeko mugimenduak.

2022-01-25



TEKNOLOGIA

Teknologiaren deskolonizazioa



DIANA FRANCO

Aspaldi Mexikoko lagun batek deskolonizazioaren inguruan hitz egin zidan. Boterea da harreman konplexuen bidez ematen den dinamika, eta Mexikon, harreman horiek kolonizazioaren garaitik aldatzen hasi ziren, aurretik zeuden indigenen eta kulturen kalterako.

Digitalizazioaren garaian, gu gara indigenak? Gu gara teknologiak eta ezagutzak pentsatzen eta sortzen ez ditugunak? Baita antzeko gertaera baten aurrean egoitea? Hori uste dute Digital Freedom Found bezalako erakundeek. Ditugun teknologiek mundua ulertzeko modu jakin batzuk jasotzen dituztela eta mundua homogeneizatzeko modu bat direla, "egite" horretan parte hartu ez dutenen kalterako.

Egoera honen aurrean, mugimendu ugari sortu da deskolonizazioaren inguruan, eta teknologian ere gaia lantzeko beharra dagoela diote. Teknologien eta ezagutzaren deskolonizazioak zer izan beharko lukeen aztertze eta teknologiararen eta ezagutzaren garapenean begirada berriak barneratzeko lanean ari dira. Horietako bat da, adibidez, Wikipedia. Wikipediak *Whose Knowledge?* egitasmoa jarri zuen martxan 2016. urtean. Besteak beste, helburua da Wikipedian emakumeen presentzia areagotzea, hizkuntza ezberdinen presentzia bultzatzea, datuak egituratzeko moduak berrikustea...

Gai benetan interesgarri baten aurrean gaude; lortuko ote dute deskolonizazioaren bila lantzen diren egitasmoek teknologietan modu sakonean eragitea, eremu digitala ulertzeko modu ezberdinak garatu arte? Noraino ez da bihurtuko herri ezberdinen kulturetara betiko estrategiak moztuz betikoa gehiagorentzat egiteko modua? Gurean badugu oso gai interesgarria, euskararen presentzia eremu digitalean. Adimen artifizialarekin hizkuntza gutxituen presentzia eremu digitalean areagotu daiteke. Baina hizkuntzaren presentzia soilak eragin dezake eremu digitala ulertzeko moduan? Galdera ugariz beteriko bidaia da teknologien deskolonizazioa. ●

NAZIOARTEA



Jatorrizko herrien bandera salgai

AXIER LOPEZ

Australiako Gobernuak pasa den astean iragarri du jatorrizko herriak ordezkatzeko dituen banderaren eskubideak eskuratu dituela. Gezurra dirudien arren, bandera horrek copyright-a zuen, baina hemendik aurrera publikoki doan erabili ahal izango dute, Harold Thomas sortzailearekin tirabira komertziala amaitu ondoren. Australiako Gobernuak 12 milioi eta erdi euro ordaindu ditu banderaren eskubideen truke.

Thomasek ikurra sortu zuen 1971ko Aborigenen Egunaren aldeko manifestazioan erabiltzeko. Orduetik, herri indigena guztien batasun eta harrotasun ikur bihurtu da. Halere, jatorrizko herritarrek ere ordaindu behar izan dute bandera arropa eta produktuetan erabiltzeko. Joan den astera arte.

Jatorrizko herrien presioaren eta kiroletan hainbat kasu polemikoren ondoren hartu du erabakia gobernuak. Adibidez, Australiako Futbol Ligak bandera erakusteagatik ordaintzeari uko egin zion. "Gure herriaren bizirapenaren sinboloa da. Gutako asko ez gara Australiako banderarekin identifikatzen, guretat kolonizazioa eta inbasioa irudikatzen dituelako", adierazi dute bandera askatzeko lanean ari zen Free the Flag taldeko kideek.

Australiako indigenek oro har pozik hartu dute aldaketa, baina batek baino gehiagok kezka adierazi du marketina ez ote den galdetuta. Australiako Egun

Nazionala ospatu baino 24 ordu lehenago iragarri du neurria gobernuak.

Urtarrilaren 26a "australiar guztien eguna" da; 1788ko egun horretan preso britainiarrez jositako lehen itsasontziak Australiara iritsi eta ezarri zuten lehen kolonia oroitzuten dute. Hori dela eta, ekintzaile indigenek inbasioaren eguntzat hartzen dute, eta ospatzeko ezer ez dagoela diote, kolonizatzaile europarren aurkako erresistentziatik harago.

Aurten ere manifestazioak izan dira herrialdean barna. Canberra hiriburuan parlamentu aurrean Egun Nazionala behin betiko bertan behera uzteko eskatu zuten. Melbourne, James Cook kolonizatzaile ingelesaren estatua bat gorritz margotu zuten. "Australiaren Eguna abolitu", zioten kartekek.

Presioak eraginda, azken urteotan Australiako Gobernuak keinu asko ari da egiten. Adibidez, 2008an jatorrizko herriei ofizialki barkamena eskatu zien "egindako guztiagatik"; 2020an ereserki nazionalaren letra aldatu zuen "inklusiboagoa" izan zedin; eta ia kalte ordainak ordaindu zizkien lapurtutako umeen ondorengoei -1910 eta 1970 artean 100.000 adingabe indigena inguru bahitu zituen Australiako Estatuak, familia zuriei emateko edo "hezkuntzaren bitartez zibilizatzeko". Keinu garrantzitsuak dira, baina ez dute funtsezkoa eraldatu: Australiako jatorrizko herriak prekarietatearen eta bazterketaren sinonimo dira, baita gaur egun ere. ●

Konkistatzailearen estatua bota dute Puerto Ricon

📷 EL NUEVO DIA / ALEX FIGUEROA CANCEL

PUERTO RICO / Espainiako erregea irlan izan da, hiriburuaren sorreraren bosgarren mendeurreneko ospakizunetan. Ponce de León Espainiako konkistatzaile eta genozidak eraiki zuen hiria, 1521ean, eta bere estatua bota dute, bisitaren aitzakian. Puerto Ricoko Alderdi Independentistak iraintzat jo du bisita, eta kritikatu du enpresa-interesak daudela atzean. Puerto Rico “inbaditzen” ari direla salatu dute ekintzaileek. Herriar batzuek elkarretaratzea egin dute, erregearen bisitan Euskal Herriko eta Kataluniako autodeterminazio eskubidea aldarrikatzeko.



GKS

“Ofentsiba ekonomikoa eta politikoa gelditzeko” eskatu dute milaka lagunek Bilbon eta Iruñean, Gazte Koordinadora Sozialistak deituta. Salatu dute bankariek, enpresariak eta politikariak gazteen bizi kalitatea “okertu” eta eskubideak “ezabatu” dituztela. Horren aurrean “estatu sozialista” eraikitzea deitu dute.

Lan erreforma

Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan milaka lagun atera dira, Espainiako Kongresuan otsailaren 3an bozkatzeko den “lan erreforma horri” ezetz esateko. Sindikatuek salatu dute “Espainiako Gobernuak ez duela bere hitza bete, ez du 2012an Alderdi Popularrak aldebakarrez inposatutako lan erreforma indargabetu”.

Gure Esku Dago

Uztailaren 2an, katalan eta euskal herritarrek Pirinioetako 300 gailurretik gora argiztatuko dituzte. Farol bereziak eta linternak baliatuz, argi-lerro bat osatzea da asmoa, Higer lurmuturretik Creusera, Atlantikotik Mediterraneora. “Euskal Herria eta Katalunia batuz, gure herrien autodeterminazio eskubidea aldarrikatuko dugu”.

COVID-19AK FRENATU DU MUNDU OSOKO EKONOMIEN HAZKUNDEA, **EZ ORDEA ARMA SALTZAILE HANDIENA**

Konfinamenduak, hornidura kateetako etenak, kontsumitzaileen etsipena... COVID-19ak muturreko galantak eman dizkie munduko ekonomia guztiei. Sektore batek, alabaina, immunitatea eduki du pandemiaren erdian: armagintzak. Gobernuak sendu segitu baitute inbertitzen gerrarako prestakizunetan. Stockholmeko Bakearen Ikerketen Institutuak (SIPRI) berrikitan erakutsi du nolaz handitu diren munduko 100 armagile handien salmentak.

 PELLO ZUBIRIA KAMINO

2020an munduko ekonomiak %4,4 egin zuen behera COVID-19 pandemiaren eraginez, 1930etako Depresio Handiaz geroztik ikusi gabeko atzeraldia: herritarren kontsumoa gainbehera, burtsak zenbaki gorrietan, turismoa izoztuta, langabezia kopuruak gora... Farmaziako konpainiak izan ei ziren anabasaren erdian lehenaz gain beren fakturazioa handitzea lortu zuten bakarrak. Bakarrak ote? Ez: 2020an armagintzak ere handitu zituen ekoizpen eta salmenta kopuruak. Gerra dela –gerra prestatzea, oraingoz...– negozioirik ziurrenetakoa.

Hala erakutsi du Stockholmeko Bakearen Ikerketen Institutuak (SIPRI ingelesezko sigletan) plazaratu berri duen dosierak: *Business as usual? Arms sales of SIPRI Top 100 arms companies continue to grow amid pandemic* (“Negozioa betiko bidean? SIPRIren zerrendako 100 arma saltzaile nagusiek handitzen jarraitu dute pandemiaren erdian”). SIPRI 1966an fundatutako *think tank* independente bat da, gerra, armagintza, armen kontrol eta armagabetzearen berezitatea, hein handi batean Suediako Gobernuaren dirulaguntzaz sustatua.

Ikerlanak kopuru zehatzez erakutsi du zein osasuntsu mantendu diren armagileak pandemiak kutsatzeko beldurrik gabe. Munduko 100 arma konpainia handienek aurreko urteko fakturazioarekin alderatuta 2020an

%1,3 handitu zituzten arma eta zerbitzu militarren salmentak, 531.000 milioi dolarretara (470.000 euro) iritsiz. SIPRI 2015ean hasi zen armen rankingeko *top 100* horien jarraipena egiten eta kalkulatu du azken bost urte hauetan arma eta zerbitzu militarren salerosketa %17 hazi dela.

Pandemiak eragin ditu hainbat matxura handion artean ere, noski. Adibidez, Thales armagile frantsesaren salmentak %5,8 murriztu ziren konfinamenduen eta hornidura kateetako etenen ondorioz. Baina oro har koronabirusak ez die kalterik egin konpainia handioi, mesede baizik. SIPRIko ikerlari Alexandra Marksteinerren esanetan, “gobernuak gogoz babestu dituzte industria honetako erraldoiak. Gastu militarrek handitu egin dira munduko bazter askotan eta gobernuak azkartu ere egin dituzte arma industriari egin beharreko ordainketak, COVID-19aren eragina arintzeko”.

100 arma ekoizle handien zerrendan AEBkoek osatzen dute multzorik handiena, ehunetatik 41 dira yankiak, tartean zerrendako sei lehenak. 41 konpainion artean armatan fakturatu dituzte 285.000 milioi dolar, esan nahi baita aurreko urtean baino %1,9 gehiago. Beste konparazio batean, AEBetako arma industriak berak bakarrik ekoiztu eta saldu du munduko 100 konpainia handienek saldutakoen %54. Gainbehera omen doan inperio batentzako ez dago gaizki.


Txinak bost konpainia dauzka 100 handien artean, 2020an 66.800 milioi dolarreko salmentak pilatuz, aurreko urtean baino %1,5 gehiago. Azken urteotan Txinako armagileek etekina atera diete herrialdeko armadaren modernizazio programei eta industria militarrek eta zibilak batzeko ahaleginean ari dira.

LOBBY LANAREN ETEKINAK

Ondorengo multzo handia Europako konpainiek osatzen dute. 26 enpresa europarren artean 109.000 milioi dolarreko salmentak lortu zituzten 2020an. Europarren buru, zazpi konpainia ingeles, %6,2 gehiago saltzea lortuz. BAE Systems ingelesa munduko hamar handienetan dago.

Sei arma saltzaile Frantziakoak dira, baina multzo hau da europarren artean 2020an salmentetan atzera egin zuena: %7,7 gutxiago. Antza, errua dauka Dassault konpainiak, urtetik urtera salmentak galtzen dituen *Rafale* gerra hegazkinaren egilea. Horren ifrentzuan, Safran enpresaren salmenta militarrek hazi egin ziren, nabigazio sistema eta behaketa elektronikorako osagaien eraginez.

Ondoren datoz Alemaniako bost ekoizle handiak, tartean Rheinmetall eta ThyssenKrupp. Espainiak ere badauka armagile handi bat handien artean, zerrendan 84garrena den Navantia. Eta 100 handien zerrendan osatzen dau-



ESPAZIOA, GERRA

bi sektore negozio bakarrean: Aerojet Rocketdyne konpainiak, Lockheed martinek erosiak, ilargira eta martera doazen espazio-ontzientzako motoreak egiten ditu. Argazkia: Christina House

de Israelgo hiru konpainia, Japoniako bost, Koreako lau eta Indiako hiru.


SIPRIren sailkapenak nabarmen uzten du Errusiako arma konpainien indar galtzea, aurreko urtearen aldean %6.5 gutxiago saldu baitute, hirugarren urtez errepikatu den joeran. Industria militar errusiarraren makalaldia lotuta omen dago Moskuko gobernuak armak berri-tzeko ezarritako 2011-2020 programaren amaierarekin; baina gainera, luzaz errusiarren bezero izandako Indiak eta Txinak aurrerapen handiak egin dituzte industria honetan, konpainia txinatarrek batik bat errusiarrei aurea hartua diete: “Bereziki deigarria da munduaren hegoaldeko arma konpainiak gero eta indartsuago direla ohartzea”.

Arma ekoizleen osasun onak asko zor dio mundu osoan egiten duten lobby lanari. AEBetan, Open Secrets gober-nuz kanpoko erakundeak esan duenez, “defentsa konpainiek urtero milioiak oparitzen dizkiete politikariei eta beren kanpainei. Azken bi hamarkadetan lobbyista eta donatzaileen artean 285 milioi dolar eman dizkiete zuzenean politikariei kanpainetarako eta 2.500 milioi gehiago gastatu dituzte armagin-tza politiketan eragiteko lobbygintzan”. Hori AEBetan bada, Europa zaharrean ez gara urruti ibiliko.

Industria militarren garai berrieta-ko beste ezaugarri bat da arlo militarra-ren eta zibilaren arteko bereizketaren lausotzea. “Informazio teknologiak da-

goeneko ezin dira berezi armagintzatik”, dio SIPRIk txostenean. Horrela, arma-gintzan klasikoak diren Lockheed Mar-tin bezalako en-doon, azken urteotan Silicon Valleyko erraldoiak ere jokoan sartu dira, hala nola Google, Microsoft edo Oracle. Microsoft batek 22.000 mi-lioiko kontratua dauka AEBetako Defen-tsa ministerioarekin, militarrekin batera teknologiarik aurreratuenak garatzeko. Posible da laster teknologietako erraldoi horietako batzuk armagintzako *Top 100* sailkapenean sartzea.

Eta euskaldunok ezer ‘pintatzen’ al dugu armagintzan? Askok balio du berriz leitzea Estetxu Izagirrek 2017an plaza-ratutako “*Etxean kondor*” erreportaje argigarria. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

info@zinkunegioptika.com

www.zinkunegioptika.com



Xabier Amuriza

IDAZLEA BERTSOLARIARI GAINA HARTUA



GEHIEN HARRITZEN NAUEN ETXEPAREREN POEMA 'EMAZTEN FAVORE' IZENEKOA DA



Ez da geldirik egotekoa. *Neska bat leku imposiblean* argitaratu zuen 2018an. Aurten, *Uharte bat Venusen* nobela argitaratu zigun uda atarian eta, udazkenean, berriz, euskara batura ekarri du Bernat Etxepare. Bitartean, kopia kantari ere ibili da Agus Barandiaranekin Korrontzi taldean, zinema-aretoetan da *Apaiz kartzela*, eta astero da Euskadi Irratian. Denetan, Xabier Amuriza.

MIEL A. ELUSTONDO ZALDI ERO

**Bilbo Zaharra euskaltegiaren
Klasikoen irakurketa jarraitua ageri
da zure Etxepare, jalgi hadi batura
(Erroteta, 2021) honen atzean...**

Beti izan dut harreman atsegin eta hurbilekoa euskaltegi horrekin, eta Etxepareren irakurketa egin nahi zutela jakinarazi zidatenean —eta aurretik hiru hitzaldi egingo zirela, eta haietako bat nik egitea nahi zutela—, pozik hartu nuen eskaintza. Gero, gertatu zen hitzaldia ez baina saiakera ateratzaidala, gaiari gustua hartu niolako. Eta saiakeraren barruan, Etxepareren antologia bat ere egokitu nuen euskara batura, poema bakoitzetik lau edo bost estrofa ustez esanguratsuenak hautatuz. Hamalau kanta ziren, azkenean, eta haiei

azalpen bat gehituz, ordu eta laurden inguruko ekitaldi bat, deklamaturia eta kantaturia, osatzeko moduko materiala sortu nuen. Uste nuen horrela Etxepareren ikuspegi nahiko argi eta oso bat eman niezaiokeela entzuleari.


**Etxepareren poema liburua batuan
argitaratu duzu, baina ez, ordea,
aipatu diguzun saiakera...**

Ez dakit liburu formatuan argitaratuko dudan ere. Sarean jarriko dut, seguruenik. Baina eginda dago, bai, esan dudan antologia hori barne, zeren, azken batean, kantatzeko ari baita Etxepare. Tradizio baten barruan ari da, tradiziozko asmatu gabe. Lehenik eta behin, Etxepare koblakaria ageri da *Linguae Vasconum*

Primitiae liburuan. Etxepare bertsolaria zen, Hego Euskal Herriko terminologian. Antologia osatu nuen, lehen ere Xalbadorrekin eta Lazkao Txikirekin egina nuen bezala. Bestalde, banuen eredu bat, Yon Etxaidek Etxahun Barkoxeren bertsoak gipuzkerara ekarri baitzituen. Aurrekari bat bazen, beraz. Hala, klasikoen irakurketaren barruan hitzaldia egin nuenean, Etxepareren poemen laburpenak batura ekarri nituen, eta jendaurrean kantatu nituen, euskaltegiko ikasle eta beste entzule batzuen aurrean.

**Baina nola ekarri batura duela 500
urteko Etxepare?**

Etxeparek dioena esanez. Hori argi dago. Nire bertsioa irakurtzen duenak Etxe-



Xabier Amuriza Zarraonaindia

ETXANO, 1941



Bertsolari txapelduna bezain idazle, ikertzaile, saiakeragile, itzultzaile... Hainbat liburu ditu argitaratuak, nahiz gizartearen begietara Amuriza bertsolaria nagusitu zaion beste ezain figurari. Hamaika lan eta eleberri publikaturik ere —*Menditik mundura, Hil ala bizi, Oromenderrieta, 4x4 operazioa, Neska bat leku inpossiblean...*—, aurtengo *Uharte bat Venusen* ei du bere lanik inportanteenetakoa, has eta buru asmazioa baitu zeharo. Amurizaren barrunbeetara heltzeko bidea dukegu liburu horretan irakurleok. Hobeko dugu esku batean hura hartu, eta, bestean, berriz, euskarazko lehen liburuaren bertsio gaurkotua: Etxepareren poemategia.

pare irakurri behar du, ez ni. Horixe nuen helburua. Nik errima eta abarrak gehiago ere zorroztu nitzakeen, baina Etxepareren airea galduko nukeen. Aldakuntzak egin ditut, baina beti ere bere horretan utziz edukia. Batzuetan, aldakuntza handi samarrak ere gertatzen dira, batez ere errimak aldatzean. Orduan, zailtasun handiak sortzen dira edukiari leial eusteko. Ehuneko ehunean ezinezkoa bada ere, ehuneko ia oso batean lortu dudala uste dut. Uste dut nire bertsioak Etxepareren aire eta estilo osoa dituela, eta gaurko irakurleak aise ulertuko duela.

Etxeparek doktrinaren barruan ama birjinari eskaintzen dion otoitzari oharra egin behar izan diozu.

Bai. *Orationia* izenekoa. Kasu horretan, zegoen-zegoenean utzi dut errima. Hamabost estrofa, errima berdinean. Ez dakit zerbaitegatik apropos egin izango zuen. Ez dut intentzioa inon iradokita ikusten. Hala ere, behingoagatik, poema guztia errima berdinean uztea erabaki nuen. Uste dut Etxepare ez zela saiatu errima-sistema garatzen. Tradizioan zebilen, eta garai hartan, baita geroago ere, errima ez zen oso bariatua. Oihenart baten kasua ez bada, behintzat. Jende kultua baitzen Oihenart. Kontzientea eta zorrotza. Eta zerbait sofistikatu ere bai. Etxepare beste tradizio batekoa zen, errimari aparteko garrantzirik eman gabe ibili zena. Ez zeukan jakintza hori. Inguruko hizkuntzetan, errima askoz garatuagoa zebilen aurretik ere. Euskaraz, atzerapen horren arrazoi nagusietako bat deklinabide erantsia izan daiteke. Oso geroago, Etxahun Barkoxe bera ere Etxepareren antzekoa da erriman. Gorago aipatu saiakeran azaltzen ditut kontu hauek.

Etxepareren inperfekzio eta hutsak hor diren arren, aldarean daukagu Etxepare...

Eta hortxe eutsi behar diogu! Lehenengoa delako, hain zuzen. Eta lehenengoa horixe da: lehenengoa, betiko. Gainera, Etxeparek badu lehenengoa izatearen kontzientzia argia. Ni horre-

xek harritzen nau gehien: optimismoz eta euforiaz dio bera dela lehenengoa. Alde horretatik, *Kontrapas eta Sautrela* ez sinestekoak dira. Euskara frantsesaren eta espainolaren gainetik ere jartzen du. Ez parean, gainetik baizik! “Orain hura [euskara] igoko da / beste ororen gainera...” idatzi zuen! Gaztelaniaren eta frantsesaren kasuetan ez da ageri nor izan zen lehenengo idazlea. Historialariaren dedukzioak dira. Etxeparek segurantzak garbiz dio bera dela lehen euskal idazlea. Nola zekien Donemiliagan edo beste edozein bazterretan ez zela izan norbait, liburu bat euskaraz idatzia zuena?

Hamabost poema ditu liburuak.

Lehenengoa, luzea, erlijiozkoa da.

Baina gaia erlijiozkoa izanda ere, xarmagarria da Etxeparek gai horiek nola kantatzen dituen. Ni, esate baterako, liluratzen nau *Judizio Jeneral*-k. Terrorezko filma ematen du. Alegia, nola eraikitzen duen poema, harrigarria da. Badauka grazia, eta gozatu egiten dut bertso horietako batzuk errezeituz eta deklamatzuz. Gaur egun poema horrek ez duela indarririk esango du baten batek, eta baliteke. Baina gaur egun ikusten ditugun makina bat terrorezko film era horretaraxe osatuta daude. Erakargarri zait, eta interesgarri zait poema hori.

Badakigu apaizaren lana zein zen, kristauen bel-durrarekin jokatzeko, alegia, eta horixe egin zuen Etxeparek poema horretan, eta horixe egiten dute orain terrorezko pelikulek ere.

Ondoren, hamaika, amodiozkoak ditugu.

Hamahirugarrena, autobiografikoa da. Azkeneko biak, euskararen goresmenez idatzitakoak.

Amodiozko poemak direla-eta, Etxeparek era askotara kantatzen du maitasuna. Hortxe ditugu maitasunaren nahia eta ezina, maitasuneko jolasa, amore inpossiblea... Hala ere, guztien gainetik, ni gehien harritu nauen poema *Emazten favore* izenekoa duzu, nik *Emakumeen alde* itzuli dudana. Borobilak iruditu zaizkit horko esaldi batzuk, rotundoak! “Andrerik ez den lekuan / ez dakusat plazerik / ez gizona, ez etxea / ez deus ere garbirik.



/ Etxean den gauza oro / gaizki anto-
laturik / ez nuke nahi zeruratu / han
ez balitz anderrik". Grazia ere egiten du
deskribapen horrek. Eta hona gero: "Ez
dut entzun emazteak / lehen eraso gi-
zonik / bai gizonak emaztea / beti ere
lehenik. / Txarkeria sortzen baita / beti
gizonetarik! / Nola egozten zaie, bada
/ emazteei errurik?" Eta geroago: "Mila
gizon gaiztorik da / emazte batendako
/ Gizon baten mila andre / bere fedean
dago". Eta azken adibidea: "Nik ez dan-
tzut emazteak / bortxaturik gizona / bai
gizona andreari / zoroki darraiona". Ez
naiz nor konparatzeko frantsesez eta
espainolez horrelako testurik baden, ez
den. Izango da, beharbada, baina Eliza-
ren barruko apaiz bat, duela 500 urte,
emakumeen alde eta gizonen aurka ho-
rren gogor agertzea harrigarri egiten
zait.

'Mosen Bernat Etxepareren kantua' da...

Min handia ageri du poema horretan.
Ez du esaten zehazki zerk eraman zuen
kartzelara, konfabulazioren bat izan
zela besterik. Berak ez du garbi esaten,
baina bai adierazten du kartzelaldi go-
gorra pairatu zuela. Etxeparek liburua
publikatu zuen urtean bertan, 1545ean,
Trentoko Kontzilioa hasi zen. Etxepare-
ren lanak, beraz, kontzilioaren aurreko
giroa jasotzen du. Haren isla eta ispilu
da. Trento, gogoan har, protestantis-
moaren aurka sortu zen, eta semina-
rioak sortzea ere ekarri zuen. Testualki,

kredoaren libertinajearen kontra sortu
zen, eta diziplina arautzeko eta estu-
tzeko.

'Garaziko herria benedika dadila...', euskara ere kantatu zuen Etxeparek.

Harrigarri egiten zait euskarari ezartzen
dion euforia. Kanta horietan dioena be-
netan sentitzen bazuen, eta baietz diru-
di, Etxepare izan da euskaldunik zorion-
tsuena. Eta ni, bigarren zoriontsuena,
lan hau egin dudalako. Etxeparek sentitu
zuen poz hura gauza handia baita! Eta
zuk galdetuko didazu, "Gaur, optimismo
horretaz, zer?". Bada, ez dakit. Euskara
Batua sortu zenetik mende erdi joana
da, eta hortxe gabilitza borrokan eta la-
nean, erresistentzian ala aurrerabidean
goazen garbi ez dakigula.

Norentzat egin duzu Etxepare hau?

Lehen-lehenik, idazlea interesatzen
zaionarentzat. Nik uste edozein eus-
kaldun jantziri interesatzen zaiola gure
lehen idazleak zer dioen eta nola dioen.
Forma eta edukia. Aurkezpen egunean,
Bilboko Plaza Barrian, Mikel Martinez
antzerkilariarekin topo egin nuen, eta
zertara nindoan azaldu nionean esan
zuen: "Hara, bada, irakurriko dut. Ea
noizbait jakiten dugun Etxeparek zer
dioen!". Bada, horrelakoentzat da liburu
hau. Etxepare era eskuragarrian, ulerga-
rrian edukitzea gauza on bat dela uste
dut. Euskaltegietan-eta, adibidez, me-
rezi du irakurria izatea. Baina originala
bakarrik nori eman behar diozu? Liburu



BERTSIOAK

"Etxeparek berak dioena esan nahi
izan dut nik. Hainbatetan, hark
dioenaren forma aldatu behar
izan dut, eta badakit, forma alda-
tuz, edukia ere ukitzen dela, baina
albait gehien eutsi diot Etxeparek
esan nahi izan zuenari. Baliteke
hark esaten zuenak indar handia-
goa izatea, baina gaurko irakurlea-
ri, 500 urte geroago, nire bertsioa
ondo etorriko zaiola uste dut. Nire
ardura nagusia Etxepare bere har-
tan uztea izan da. Horregatik ageri
dira ezkerrean originala, eta esku-
inean bertsioa".

ERREZITALDIA

"Etxepareren poemen antologia
bat ere egin da, eta haiek erre-
zitatzeko, deklamatzeko eta kanta-
tzeko prest naiz, ordu eta laurde-
neko kantaldi-hitzaldi-errezitaldi
bat eskainiz. Inork eskatuko balit,
pozik egingo nuke. Orain nire hel-
burua ez da bizibidea, baina hori
ere ez dator inoiz gaizki, zeren bi-
zibidearen barruan baitaude atse-
gina eta gozamina ere. Eta niretzat
atsegin eta gozamen handia izan da
Etxepare euskara batura ekartzea".

Azken hitza

KOBLAKARI

"*Contrapas* kantuan, 'Heuscara,
jalgi hadi campora', dio lehenen-
go leloan. Gero, 'jalgi hadi plazara'.
Hirugarrenean, 'jalgi hadi mundu-
ra'. Baina mundua ez zaio nahikoa,
nonbait, eta laugarrenean, 'jalgi
hadi mundu guzira', dio. Baina es-
trofa gehiago sortu zaizkio. Ba-
zekien 'jalgi hadi dançara' bukatu
behar zuela, baina, tarteko estrofa
horiei zer destino eman? Eta hala,
hiru estrofaren lelotzat, 'Heusca-
ra' hiru aldiz errepikatu, eta hor-
txe gelditu zen. Ziur horixe gertatu
zitzaiola, neuk ere maiz ikusi bai-
tut neure burua halako trantzean.
Koblakariaren pentsamoldea du
Etxeparek".

honetan, biak daude parean: originala ezkerrean, nire bertsioa eskuinean. Jolas bat ere izan daiteke konparazioak egitea.

Etxeparek esaten dituen hauek?

Gauza batzuk okerrago, seguruenik. Etxepareren liburuan pasarte asko dotore esanda daude, koblakaritza tradizionalaren arabera, metafora abstraktu eta irudi poetiko askorik gabe, baina naturaltasunez eta elegantziaz, teknika kontuak gorabehera. Neure gai bat izan balitz, beste era bateko metaforak, abstrakzioak edo direnak direlakoak erabiliko nituzkeen, eta beste era bateko neurriak eta errimak ere bai. Baina gaia eta helburua Etxepare bera zen, eta niretzat gozamina, jolasa, dibertsioa izan da Etxepare.

Uharte bat Venusen nobela ez bezala. Hura ez da jolasa izan...

Bai eta ez. Nik asko gozatu nuen nobela hura idazten. Eta egia esan, niri benetan interesatzen zaidana liburu horixe da: *Uharte bat Venusen*. Nire lanik inportanteena izan daiteke. Hortxe utzi dut neure sentiera intelektuala. Zibilizazio aurreratuago bat, gizateria inteligente bat. Eta gizateria horren osagai eta adierazgarri gisan, hizkuntza bera ere fase aurreratuago eta inteligenteagoan kokatu dut.

Gizateria inteligenteagoa, zertarako? Beste utopia bat?

Baina utopia inteligentea. Eta kasu honetan, ez hain utopia ere, niretzat balio izan baitu. Aspaldi erabaki nuen era inteligentean bizi behar nuela, eta lortu dut. Gizartea ez da izango nobela horretan ageri den modukoa, baina ni bai, izan naiteke. Gizarte erreal honetan, ni bizi naiteke era inteligentean.

Zeure lan inportanteena duzula esan diguzu. Zergatik du inportantzia handi hori?

Alde batera, narrazio hori fikzio totala delako. Beste guztietan, bizitzatik ari nintzen. Nobela hori neure asmozioa da guztia. Horregatik da *Uharte bat Venusen*. Gizarte honetakoek ez dute mundu hura ulertzen, ez hemen, ez inon. Horregatik behar zuen Venusen. Sarritan pentsatu ohi dut zer izango litzatekeen, bat-batean, gizatalde bat bakarrik geratuko bagina, beste inor gabe eta inolako aurrerapen gabe. Ataka horretan abiatzen da narrazioa, halako gatazka handi baten ondoren. Eta gizateria txiki horrek bizi-rautea lortzen du, baita zibilizazio bat



sortzea ere. Zibilizazio inteligente bat. Une batean, zibilizazio horretara iristen da, kasualki, mundu aurreratuako ikerrontzi oso aurreratu bat, eta hortxe hasten da talka edo kontraste progresiboen katea, gizarte askoz aurreratuagoa eta askoz sinpleagoa aurkitzen baitute bertan. Hizkuntza bera ere askoz sinpleagoa eta efektiboagoa aurkitzen dute.

Gizarte sinpleagoa diozu, eta euskara ere bai. Nola egiten da hori?

Hori jakiteko, nobela irakurri behar! Hizkuntzaren kasuan, eredu bat eraikitzen da non, adibidez, aditza ia muturreraino sinplifikatzen baita. Gaia luzea litzateke, eta ez dut nahi inork gaizki uler nazan. Horregatik, orain eta hemen hauxe baino ez dizut esango: gure aditzarekin ez dago hizkuntza lehiakor bat egiterik. Ezinezkoa da eta, gainera, imposiblea da. Har ezazu, adibidez, ingelesetik he has, gaztelaniatik él ha edo ella ha eta frantsesetik il a aditz forma laguntzailea. Bada, forma horietako bakoitzarentzat, euskaraz 200 forma ezberdin behar dituzu! Zeure etxean sartzeko, giltza bakarraren tokian, 200 giltza ezberdin maniatu behar izatea bezala. Horrelakoxea da gure aditza. Idazteko, balio dezake, nahi adina denbora eta zuzenketa egin ahal baitira. Baina hizkuntza, oinarrian, hizkera da, eta hitz egiteko, aditz sinpleago bat garatu ezik, ez duzu hizkera fluido eta sozializatu bat lortuko. Ez, behintzat, inguruko —eta geure barneko!—, beste hizkuntza batekin edo batzuekin lehiatu beharra dugun bitartean.


Osoa, lehiakorra, nazionala. Euskara batuaren bigarren jaiotza liburuan

bazen atal bat horretaz: Aditzaren fantasia heroikoa.

Horrelako zerbait. Baina ideia hori garatzeko, denbora luzea beharko genuke, entzuleekin lasai hitz eginez aritzeko. Honela, laburrean, gaizki azaltzeko eta nahi ez nukeena ulertzeko arriskua dago. *Uharte bat Venusen* nobelako zibilizazioak ez du ulertzen zergatik darabilgun horren aditz demonioa, eurentzat erabat arkaikoa. Hango aditzean, denbora esan daiteke, argiago, laburrago eta era oso sinplifikatuan. Ez da, noski, goizetik gauera burutzeko transformazio bat, etorkizuneko norabide bat baizik. Edo aditza sinplifikatzen da, edo ezin da konpetitu. Venusen, hango herriarrek era horretara hitz egiten dute. Zerbait aipatu didaten irakurleei —ez asko ere, egia esan—, galdetu izan diet lehen-lehenik: “Erraz ulertu al duzu?” Eta erantzuna: “Bai, bai! Oso erraz”. Eta bigarren galdera, berehalakoa: “Zailtasun-erraztasunean, zer iruditzen zaizu?” Eta erantzuna ere, berehalakoa: “Askoz errazagoa”. Bada, niretzat ez dago bi erantzun horiek baino argudio konbinatzenagorik.

Eztabaidagarria, esaten ari zarena.

Eztabaidagarria, baina saihetsezina. Eztena korapilo zentraletan sartu behar da, ez kontu anekdotiko eta bitxietan. Dakitenek dakitena egin behar dute, dakiten moduan. Baina etorkizunean, etorkizun batean, euskaraz ikasi nahi dutenei hura soltuz menperatzeko bidea errazten ez bazaie, zail izango da konpetentziari eustea. “Zail” diodanean, badakizu zer ulertu behar den. ●



Zein irits daiteke ikertzaile izatera?



IKER IRAOLA ARRETXE
EHUKO IRAKASLEA ETA
IKERTZAILEA

Sareetan irakurri dut unibertsitateko ikerlarien ebaluazioak eztabaida piztu duela Katalunian. Eztabaida txikia izan da, edonola ere, noizean behin han-hemenka pizten den horietakoa. Gai nabarmena iruditzen zait, izan ere, unibertsitatean lanpostu bat lortzeko, edo karrera akademikoa egiteko, funtsezko kontua da akreditazio agentziena. Labur esanda, unibertsitate publikoan lekua lortzeko (kontuan izan ikerketa batez ere unibertsitate publikoetan garatzen dela), irakasle-ikerlariaren curriculum unibertsitateaz kanpoko agentzia batzuek ebaluatzen dute. Adi, kontua ez da lanpostu egonkor eta ondo ordaindu bat lortzeko gertatzen dela hori, baizik eta “prestakuntzako” profiletan ere beharrezkoa dela agentzia horien ebaluazioa. Karrera akademikoa aurrera egiteko ere, geroz eta beharrezkoa da hainbat ebaluazio gairak. Kontu konplexua da, eta baditu bere alde hobeak ere, nolabait ibilbide akademikoa argitzen eta objektibatzen den heinean.

Azken hamarkadetan, modernitatearen erakunde sendoak ahultzen ari diren honetan, hots, desarautzeak ezaugarritutako gure jendarte geroz eta neoliberalago hauetan, unibertsitateko adituaren funtzio soziala lehen baino gehiago jartzen ari da zalantzan. Hala ere, oraindik legitimitaterik badu figura horrek jendartearen aurrean Egiaz, Zientziaz edota Pentsamendu Kritikoaz aritzeko, besteak beste. Beraz, posizio

Europako beste herrialdeekin alderatuta, zorionez, ikertzaileen ibilbidearen logika turbokapitalista horiek ez dira hain argiak gurean, esango nuke. Arlo batzuetan bederen. Baina joerak eta presioak horiek dira

sozial horietara nor eta nola iristen den kontuan hartzea ez da, inondik inora, korporatibismoari edo langile zehatz batzuen lan baldintzei lotutako kontu hutsa. Aitzitik, esangura sozial sakonagoa duen auzia dela esango nuke.

Kasu gehien-gehienetan ikertzailea irakaslea da aldi berean, ikerkuntzara soilik bideraturiko figurak gutxiengo baitira, gizarte zientzietan eta humanitateetan batez ere. Bide horretan, bada, artikulu zientifikoen argitalpenak aintzat hartzen dira nagusiki; geroz eta gehiago enpresa erraldoi gutxi batzuen jabetza diren aldizkarietako artikulua, edota enpresa horiek beraiek kudeatzen dituzten zerrendetan agertzen direnak. Negozio handia da, beraz, mota horre-

tako aldizkarietan publikatzea batik bat diru publikoz hornitzen den ikerketa, askotan sarbide irekirik gabe. Egoera horren ifrentzua da, bestalde, eztabaida zientifiko oso bat garatzen dela kanal horietatik, eta ezinbestekoa dela berau kontuan hartzea.

Prozesu luze horrek guztiak, baina, egiturazko baldintzapen argiak dauzka, eta ezin ditugu horiek ahaztu, ustezko bikaintasunaren izenean. Europako beste herrialdeekin alderatuta, zorionez, ikertzaileen ibilbidearen logika turbokapitalista horiek ez dira hain argiak gurean, esango nuke. Arlo batzuetan bederen. Baina joerak eta presioak horiek dira.

Honaino iritsita, non gelditzen da euskarazko ikerketa? Zergatik argitaratu beharko lituzke Euskal Herriko ikertzaile batek bere lanak euskaraz (beste hizkuntza batzuetan kaleratzearekin batera, noski), ebaluazio prozesu horretan guztian gutxiago hartuko badira kontuan? Asmo politikoa eta militantea ezinbestekoak izango dira, ziurrenik. Baina, gainera, ikerkuntzaren merkantilizazioaren logika neoliberal horren guztiaren aurrean galga ere bada euskarazko ikerkuntzaren eremua indartzea. Bide horretan, ikerkuntza ebaluatzen duten erakundeak eta arauak Euskal Herrian bertan erabakitzea funtsezkoa iruditzen zait, ikerkuntzaren logika berri bat eraikitzearen norabidean. Horretarako ere burujabetza ezinbestekoa da. ●

Dirutza tzar bat kostatzea



BEA SALABERRI
IRAKASLEA

Halaxe hasten da *Un pognon de dingue* (Dirutza tzar bat) izenburuko dokumentala (2021, Bioret, Delrue, Fourrage), Warren Buffet estatubatuar milioi askokoaren 2005eko errana gogora ekarriz: “Klase borroka izan, bada, baina nire klasea da, aberatsen klasea, gerla hori eramaten ari dena eta irabazten ari gara”. Erranaldiak iragartzen duenaren biolentzia asumituak ekibalente gutxi izanen ditu Historian, dudarik gabe.

Dokumentalaren ardatza dira kapitalismoaren basakeria eta dirudunek ekonomia eta mugimendu sozialengan nahiz politikoengan duten eragina, monopolioa, alde bakartasuna eta inpunitate, eta honen parean masaren edo langilegoaren ahulezia eta ezintasuna. Neurri “sozialak” beti dira petatxuak, anekdotikoak eta ororen buru klase nagusiaren zerbitzuko. Gizarte honek ez du gehiago deus gordetzen, ez du deus isiltzen. Alderantziz, badirudi lehia dela, ea zeinek ateraldi boro-bilena egin, txokanteena, likitsena eta ea zenbateko tarte eskaintzen zaion komunikabideetan. Ez du programarik behar, dagoeneko aurreikusia delako gertatu beharra.

Buffeten hitzek, arras deskonplexatu eta bortitzek, oihartzun egiten dieten azken bost urteetan Macron presidentearen gisakoen ahotik entzun behar izan direnei. Gogoratzen dugu “soineko ederraren erosteko molderik hobereana, lan egitea da” famatua; irri egin genuen, Fillonek aurreko presidentzialetan eskuratu ator eta soinekoak oroituz. Hastapena zen, 2018an edo. Badira geroztik bestalde: “Lan bat nahi baduzu, aski duzu bidea zeharkatzea”, “langileek gehiago lan egin behar dute,



PAULA ESTÉVEZ

gehiago pagatuak izan gabe” edo “laguntza sozialek sekulako kostua dute, eta jendeek pobre izaten segitzen dute” eskandalizatu eta eskandalagarria, gisa bera “grebalariak, bordela sakatzaille haundiak dira”. Emeki, irriak sartu ziren. Ateraldiz ateraldi, etorkizuna baino, errealitatea begi bistakoa gelditzen zelako, ozenki. Boterean direnek, ahoan bilorik gabe aitor ditzakete haien pentsamoldeak orain, disimulu-

rik eta arriskurik gabe. Macron jesuita ikasle zintzoa ez da lehena holako ateraldiak egiten dituen. Aitzin Sarkozyk zuen maisu maila, zela Rollex, zela Fouquet’s.

2022 hastapen honetan, Frantziako Estatuko hainbat hauteskunderen atarian gaude, bereziki lehendakartzari begirakoa. Momentuz, hautagai potentzialak trumilka dira, ezker nahiz eskuin. Aldiz ateraldi nazkagarriek, ideia bihurriek, langileriarekiko mespretxuak, etengabeko mehatxuek, plaza libre dute. Eta komunikabideek badute zer ikusirik bortizkeria horrekin. Ordu onetan, leku onak erreserbatzen zaizkie hautagaiei, zeinek bere kuttuna gomita. Nagusi botereduna ardura da dotore, ibilbide espantagarrikoa, ederra (Zemmour kenduta) eta inteligen-tea. Langilea beti da zikin, inutil eta mentsa.

Udaberri hau, hauteskundee-na izanen da. Ez da besterik deus gertatuko, lasai egon zaitetze. Jukutria eta klase herra baizik ez da ikusiko eta gero, gainera, borreroa hautatzera deituko dute, okerren artean hoherena aukeratzera.

Programak, etorkizunari begirako planteamendu berriak, erabaki urratzaileak ez dira ageriko. Nehork ez baititu ala nehork ez baititu galdezkatzen? Auskalo.

Alabaina, zoritxarrez, horren guzieren ikusteko, entzuteko, bizitzeko, hautatzeko eta gero pairatzeko, ordaindu beharra da, zuzenean edo zeharka, gisa batez edo bestez, sosez, denboraz nahiz izerdiz. Eta kostatuko da dirutza animalea, gainera. ●

Bizitza



**KIMETZ ARANA
BUTROE**
BARATZEZAINA

Beste hainbat bezala COVID pasearen aurka Bilbon deituta zegoen manifestaziora joan ginen aurrekoan. Bertan adin, kolore, janzkera eta hizkera askotariko zenbat jende zegoen ikusteak asko poztu ninduen, eta tartean topatu nituen unibertsitate garaiko batailetako lagunak edo nekazari ezagunak.

Nekazal munduan txikiagoa da administrazioek jendearen eta lurraldearen gainean duten kontrola, ohituak gaude eskatzen egon beharrean sortzen zaizkigun arazoak gure kabuz konpontzera. Agian horregatik askoz malgutasun eta distantzia gehiagorekin bizi ditugu pandemiaren ondoriozko neurriak.

Nekazaritza ekologikoan, gure landare eta animalientzat nahi ez duguna ez dugu nahi guretzat ere. Beraz normala da genetikoki moldatutako txertoen errezelo izan eta hainbeste nekazari manifi topatzea.

Haurrak ere izan dira deialdiko protagonista. Umeen txertaketak sortzen dituen duden, eskoletako protokoloen gogortasunaren eta familiak jasaten ari diren presio eta egoera bortitzen ondorioz.

Gure kasuan etxean ez dugu telebistarik, baina pandemia hasi zenean komunikabideek gaiarekiko hartu zuten tonua ikusita, musikarako ez ezik beste gainontzekorako irratia itzaltzea erabaki genuen.

Gure osasunerako harturiko neurririk onenetako bat izan zela uste dut.

Kritiko izan gara beti boteretsuekin eta kritiko jarraitu dugu bi urte hauetan ere. Pandemiaren hasieratik sentitzen genuen agintarien neurri, debeku eta aholkuak haientzat onak zirela, baina ez genuen hain garbi guretzat onenak ote ziren. Horregatik gure senez jokatu dugu beti. Baratzeari ibili ginen galarazita zegoenean, aire garbia arnastu dugu ahal izan dugun guztietan eta gure herria delako Iparraldera eta Nafarroara joan gara behar izan dugunean, mugak itxita izan direnean ere.

Eztabaida debekatu eta ez da gaiaz eroso hitz egiteko aukerarik eman, norabide bakarrean ibiltzera bortxatu nahi izan gaituzte denok. Egoera horretan, nire bidea egiten eta logikatik kanpoko neurriei ahal bezala isilean iskin egiten saiatu naiz, harik eta COVID pasearen eskubide murrizketek protestara eraman nauten arte.

Sekulan ez genuen halakorik ezagutu eta ulertzen zaila da gertatzen ari dena. Ez dakigu interesak non dauden eta ez da erraza etorkizuneko bizimodu aldaketak aurreikustea. Baina alderdi, sindikatu eta eragile gehienek isiltasunaren aurrean ahots kritikoak zabaltzeko aukera eman du Bizitzak, eta bakarrik ez gaudela sentitzekoa. Ez da gutxi eta ez gara hain gutxi, ikusiko dugu zer emango duen. ●

Lehenbiziko aldiez



CASTILLO SUÁREZ
IDAZLEA

Mendiko bota batzuk jantzi nituen lehenbiziko aldia lagun bati egingadako omenaldi batera joateko izan zen. Herriko irrati librean irrati programa bat egiten genuen, eta ni literaturaz aritzen nintzen. Edo tokatzen zenaz. Hegazkin bat hartu nuen lehenbiziko aldia idazle koadrila batekin izan zen. Vigora joan ginen, eta handik Pontvedrara, eta harrezkero harro esan dezakek Igor Estankona nire laguna dela, baina beldur txiki batek hartzen nauela nire gauzak irakurtzen dituenen. Nire lehenbiziko ezezkoa Susakoek eman zidaten, eskura eman zidan Patxi Larrionek gutun bat, eta bota nuen arren,

akordatzeko naiz esaldietako bat zela arnas luzeko poemak nahiago zituztela, edo horrelako zerbait. Lehenbiziko aldia autoan galdu nintzela Durangon agertu nintzen, Aulestitik barrena, eta akordura etorri zitzaidan aitak Durangoko Azokara Urkiolatik barna eramaten gintuela, eta lasaitu nintzen orduan. Lehenbiziko aldiz prentsan idatzi nuenean Leitzaiko udaletxean zegoen Jesusen Bihotzaz idatzi nuen, baina ohartu naiz orain ez dagoela, azalekoak diren beste gauza asko bezala, baina benetakoak lehenbiziko aldian bezala mantentzen ditudala: liburuekiko maitasuna eta lagunekiko miresmena. ●

Ziztada



AMANCAY GAZTAÑAGA
SORTZAILEA

Zizt! Hor dator berriz ere, bularraldean sentitu dut goizean goiz, arraroa da benetan ziztada hau.

Zizt! Jertsearen gainetik bihotzaldea igurtzi dut, emeki. *Ea pasatzen den*, esan dut baxu, inork ez entzuteko moduan. Gaur egun kontuz ibili behar da nork-zer entzungo duen kontrolatzen.

Zizt! Automasajea arnasarekin lagundu dut; hartu-bota... *Ondo zaude?*, galdetu dit batek automasajearen erdian harrapatu nauenean. Zizt! *Bai*, erantzun diot. *Ez* erantzutea konplikatu egia iruditut zait.

Zizt! Zerbait kriptikoa idazten saiatu naiz irakurle. Zizt! Egia poesiaz maskaratu nahi izan dut. Azken aldian ematen ari den korronteari jarraitu eta mozorro festa honen partaide izan neu ere. Zizt!

Egia maskaratu, ezkutatu, poetizatu... Egia hau gordina egiten zait ordea, ze maskara jarri niezaioke? Zizt!

Zizt! Ezkutatu, badaezpada... Zizt!

Maskaradak maite ditut irakurle, horretara dedikatzen naizela esan neza ke, maskarekin gozatzeraz. Jakin badaikit zein mota, kolore eta tamainakoak jantzi behar diren, baita noiz eta nola egin ere... Orduan zergatik utzi agerian nire burua? Zergatik ez jarraitu goxo, ez-

Nazka ematen dit
pasaporte berde
horrek, irakurle.
Zikin sentitzen naiz,
kulturgile bezala
eskema guztiak
apurtzen dizkit.
Sortzaile bezala dudana
etika bortxatzen du
QR horrek

kutuan, gehiengoak ematen didan anonimatu horretan, ezer esan gabe, goxo, ezer esan gabe, ez ezer esan... Zizt!

Kontua da gogorra egiten zaidala eszenatokira igo eta ikusleei begietara begiratzea, irakurle. Pasaporte jarri dutenetik gertatzen zait, kontraesan handiz bizi dut eszenara igotzea.

Aste bukaera osoa eman dut Espainian musika taldearekin biran. Pasapor-

terik ez, jendea kultura kontsumitzeko gogoz eta egarritz. Eta nire herrian zergatik ez? Nazka eta zizt! Ze indartsua den kultura, irakurle...

Inoiz ez zait horrenbeste kostatu iritzi artikulua bat idaztea, trakets nabilenaren sentsazioa daukat; pentsamenduak lotzen, teklatuaren gainean dabiltzan hatzamarrei oztopoak jartzen...

Nazka ematen dit pasaporte berde horrek, irakurle. Zikin sentitzen naiz, kulturgile bezala eskema guztiak apurtzen dizkit. Sortzaile bezala dudana etika bortxatzen du QR horrek.

Biolentzia egiten zait batzuentzat bakarrik antzeztea. Biolentzia, hor behean daudenek agertzen duten pasibitatea pasaportea ez duen norbaiti sartzen uzten ez diotenean.

Nazka sentitzen dut eta ziztada, zizt! Mugikorreko kode horrekin batera garai ilunak datozkit burura... galtzen gabiltzanaren kontzientziarik ba ote dugu?

Trakets nabil teklatuaren gainean gaur irakurle, bai, badaikit pentsatzen dudana guztia idatziko banu agian ez nindukezula irakurriko. Eta hori ere ez al da beldurgarria? Zizt! ●

ANTXETA

IRRATIA

90.5 / 89.7 FM



uhinak euskaraz eta libreki astintzen



92 orrialde

Bidean

Aurrera egin nahi duen irakaslearen dekalogo

Koldo Rabadan Izagirre

Zoriontasunak barrutik kanporako bidea egiten du; nekez egingo gaitu kanpoko edukiak zoriontsu. Garenak egingo gaitu nor, eta garen horrek, sentitzen dugunarekin lotura zuzena du, emozioekin erlazio banaezina. Emozionatzeko gai diren eskolak behar ditugu, eta zirrara sortzeko gai diren irakasleak. Bazatoz?

14€

+ 4€
bidalketa
gastuak

40€-tik gorako
erosketetan,
bidalketa doan.



**txikitik
eragiten!**

azoka.argia.eus 943 37 15 45

Lasarte-Oriako ARGIAren egoitzan denda zabalik 08:00etatik 15:00etara (beste ordutegiak aurrez kontsultatu).

 **ARGIA**

Burdinbideetako esklaboak

Frankismoaren biktimek
zabaldutako bideak

Sukarrieta eta Bermeo arteko
burdinbidearen luzapen lanak.
Banús Hermanos enpresak preso
errepublikarrak erabili zituen
zati horretako azpiegiturak
eraikitzeko 1953 eta 1956 artean.

EUSKOTREN ARTXIBOA





Altsasu, Ribaforada, Castejón, Agurain, Gasteiz, Sukarrieta, Bermeo... euskal trenbide sareko geltokiak dira egun. Trenak maiztasunez heltzen dira eta zerbitzua eskaintzen digute. Ezin duguna ahaztu zera da, azpiegitura horiek 1936ko Gerran eta frankismoan behartutako langileek egin zituztela: presoak, gatibuak, esklaboak.

 **ANDER LEON NANCLARES**

Eskulan esklaboa erabiltzea ohikoa izan zen frankismoan. Hasieran frontean atzemandako gerrako presoek osatu zituzten langile batailoiak, “suntsitu zutena berreraiki dezatela” lelopean. Gero, gatazka zibila bukatzeaz zela, Francoren “Espainia Berriko” sare penitentziarioaren atal berezia osatu zuten, “*Patrónato para la Redención de Penas por el Trabajo*” (Lanaren bidez Zigorretatik Askatzeko Patronatua) deiturikoa. Presoak zigorra laburtzeko aukera zuen, lan egindako egun bakoitzagatik kondenako bi murrizten baitzizkioten. Patronatuaren atzean arrazoi ideologiko eta ekonomikoak zeuden: alde batetik, sistema horrek gerraosteko preso kopuru erraldoia arintzeko balio zuen –etsaia makurrarazi eta umiliatzeaz gain–; eta bestetik, Estatuak diru asko aurrezten zuen, eta kontratistek irabazi ekonomiko handiak izaten zituzten. Patronatu frankista horrek legalki 1995. urte arte iraun zuen.

Zenbaitetan lan pribatuak egin bazituzten ere, ohikoena zen presoak erabiltzea azpiegitura publiko handiak egiteko: errepideak, urtegiak, aireportuak, eta baita trenbideak ere. Azkeneko hauetan izandako lan bortxatuak ez dira behar beste ikertu orain arte, dokumentaziora heltzeko zailtasunengatik –edo, hobe esanda, erakundeek jarri izan dituzten trabengatik–, eta

mota nahiz kolore askotako gobernuek ez dituztelako, orain arte behintzat, ikerketa proiektu integralak sustatu edo babestu. Azken urteetan, interes falta hori konpontze bidean jarri nahi izan da, eta 2021ean RENFE Espainiako tren-operatzaile publikoak webgunean paratu ditu burdinbideetako langileek jasan zuten errepresioaren inguruko informazioa, behargin esklaboen izenen datu-basea eta gaiari buruzko *Los hijos del Hierro* (Burdinaren seme-alabak) dokumentala.

TRENBIDEETAKO LANGILEAK FRANKISMOAREN JOMUGAN

Frankismoarentzat asko izan ziren lanbide bereziki susmagarriak. Ezaguna da maisu-maistren kontrako errepresio bortitza, edo atezainen kontrakoa, eta trenbideetako langileak ere susmagarrien kategoria horretan sailkatu zituzten. Bigarren Errepublikara garaian tren-konpainietan aritzen ziren langileen %88k modu bateko edo besteko errepresioa jasan zuen gerora. Zigor arinenak isunak, lana kentzea edo kaleratzea izan zitezkeen, baina hortik gora atxilotak, torturak, espetxeratzeak, heriotza zigorrak... zeuden. Errepresio horren adibide da Gumiel de Izán herriko kasua. Burgosko herri horretan 59 gorpuzkin estaltzen zituen hobi bat induskatu zuten 2011n. Denak 1936an fusilatutako trenbideetako langileak ziren.



Gumiel de Izán Burgosko herrian Aranzadi zientzia elkarteak indusketak egin zituen 2011n, hobi bat azaleratzeko. Aurkitutako 59 gorpuzkinak trenbideetako langileenak ziren. Frankismoak "susmagarrien" artean sailkatu zituen Bigarren Errepublika garaian tren konpainietan aritutako langile guztiak.

ARANZADI / OSCAR RODRÍGUEZ

XIX. mendean Espainiako Estatuan lehen trenbidea eraiki zuten, eta hori egiteko ere esklaboak erabili zituzten. Liburu gehienetan 1848an inauguratutako Kataluniako Barcelona eta Mataró artekoa agertzen da lehen linea bezala, baina egiari zor, 1837an inauguratu zuten estatuko lehen burdinbidea, La Habana eta Bejucal artekoa, Kuba oraindik espainiar koroaren menpe zegoenean. Kolonia hartan esklabotza legala izan zen 1886 urtera arte, eta ekonomia kapitalistaren legerari jarraiki, hasiera eman zioten trenbideetako obretan eskulan esklaboa erabiltzeko *ohitura* aski eza-gunari. Trena, noski, ez zen herritarrek erabiltzeko, kanaberetako azukrea irlatik kanpora esportatzeko baizik.

XX. mendeko lanen kasuan, aldiz, trenbideen eraikuntzan presoek izan zuten parte-hartzea ilunpean egon da hamarkada luzez. Azken urteetan Nafarroako Unibertsitate Publikoko Fernando Mendiola eta Juan Carlos García-Funesek ikertu dituzte gehien bortxazko lan horiek, eta burdinbideen inguruan egindako ikerketen emaitzak plazaratu dituzte doktoretza tesi batean eta hainbat argitalpenetan.

Lan bortxatuek balio
zuten gerraosteko
preso kopuru
erraldoia arintzeko,
eta Estatuak diru asko
aurrezten zuen

ANDALUZIAN HILDAKO EUSKAL PRESO ESKLABOAK

Suntsitutako trenbide lineak berre-raikitzea izan zen zeregin nagusietako bat gerra garaian eta diktaduraren hasierako urteetan: zubiak konpondu edo berregin, tunelak indartu, errailak bere tokian kokatu, ezpondak ziurtatu... Erregimen berriak funtsezko azpiegitura horiek berreskuratu behar zituen arrazoi ekonomiko eta estrategiko-mi-

litarrengatik. Zeregin horretan 9.000 preso inguru ibili ziren, gehienak gerran atzemandakoak.

Euskal Herriko trenbide sareek ez zuten kalte handiegirik jasan 1936ko Gerran, beraz gure inguruan ikerlariek ez dute horrelako berreraikuntza lanen aipamen askorik aurkitu; baina euskal presoekin zerikusia duen ezbehar baten berri badakigu. 1938ko abuztutik 1940ko abuztura Extremadura eta Andaluziako hainbat herritan trenbideak konpontzen ibili ziren, eta lan horien artean garrantzitsuenetakoak izan ziren Sevillako Alanis de la Sierra herriko tren geltokia berreraikitzea eta segurtasun trenbide bat sortzea. Baina zergatik zegoen hondaturik geltoki hura? 1937ko azaroaren 19an gertaturiko istripu baten ondorioz. Egun hartan, abiaduran zihoan tren bat errailetik irteten zen eta bagoietan zihoazen 72 lagun hil ziren: haietako 57 Andaluziara derrigorrezko lanak egitera eramandako euskal preso errepublikarrak ziren.

Oraindik ez da guztiz argitu istripu horren zergatia, eta Alanis de la Sierra-ko hilobian ustez lurperatuta dauden

biktimen gorpuzkiak ere ez dituzte aurkitu, Aranzadi zientzia elkartearen ahailegindua izan den arren. 2009an Sabin Egilior zinemagileak historia hori gogoratu zuen *El largo viaje* (Bidai luzea) dokumentalean, eta senideek omenaldia egin zieten tren hartan hildakoei.


TRENBIDEEN BIKOIZKETA ERRIBERAN ETA ARABAKO LAUTADAN

Behin suntsitutako gehiena konponduta, batez ere 1940tik aurrera beste eginkizun bat agindu zieten enpresei eta langile esklaboei: dagoeneko mar txan zeuden hainbat burdinbideren ondoan bigarren burdinbide bat erakitzea. Trafiko handia zuten ibilbideak arintzeko asmoz egin ziren trenbide bikoizketa horiek, trenen joan-etorria errazagoa izan zedin. Horretarako etxetik urrun espetze zeuden preso politikoak erabili zituzten. Gatibu horiei beste gazte multzo handi bat batu zitzaizen hortik gutxira, 1915etik 1920ra bitartean jaioetako gizonezkoak.

Belaunaldi horiei Bigarren Errepublikan egokitu zitzaizen zerbitzu militarra egitea, baina agintari frankistek ez zuten soldaduska hori kontuan hartu eta zerbitzua osorik berreginarazi zieten. Haietako asko, *desafecto* labela zutenak (erregimenaren kontrakoak), langile batailoien parte bihurtu zituzten. Gure inguruan bi izan ziren esklaboek bikoiztu zituzten trenbideak: Castejón-Cortes-Zuera eta Altsasu-Agurain-Gasteiz ibilbideak egiten zituztenak.

Nafarroa hegoaldeko linean, Castejón eta Cortesen arteko tartea bikoizten, 1.500 eta 3.600 langile artean aritu ziren, garaiaren arabera. Obrek bi urteko iraupena izan zuten, 1938tik eta 1940ra eta bi langile batailoia ibili ziren: 13.a eta 149.a. Mugikortasun handia eskatzen zuten lanak ziren eta horrek ikerketa zaildu du, arrasto dokumentalak urriak baitira. Langileen presentzia dokumentatuta dago zonaldeko hainbat herritan, besteak beste Castejónen, Ribaforadan eta Cortesen; baina hortik aurrerako datuak aurkitzea ez zaie erraza egin ikerlariari. Dirudienez ofizialen eta agintarien egoitza nagusia Castejónen zegoen, eta langileen lotarako lekua mugitzen joaten ziren lanak eskatzen zirenean.

Altsasutik Gasteizerainoko linea bikoizteko obrak 1938an hasi ziren eta 149. eta 151. batailoia aritu ziren, 1.150 langile inguru -1943 eta 1944an



Los hijos del hierro dokumentalaren irudia. Azken urteetan RENFEk bere langileen memoria historikoa berreskuratzeko urratsak eman ditu eta dokumentazio ugari jarri du ikerlarien eskura.

Castejón eta Cortes arteko trenbide zatia bikoizten 1.500 eta 3.600 langile artean aritu ziren, garaiaren arabera

Zigortutako Soldaduen 95. Batailoia ere aritu zen, dirudienez-. Inguru horretako lanak ez ziren trenbidera mugatu, hainbat langile Altsasuko Orubeko harrobian harria ateratzera eta prestatzera ere behartu zuten, trenbideko lanetan erabiltzeko.

Sakanatik Agurain arteko tartea atontzen ibili ziren langileak identifikatzeko lanetan ari zirela, ikerlariak ezusteko laguntza jaso zuten Altsasuko udal artxibotik: garai haietan udal medikua zenak egindako langileen neurketa eta azterketa medikuen emaitzak eskuratu zituzten Mendiolak eta García-Funesek. Horri esker 151. batailoia 83 partaideak zein ziren jakitea lortu dute, eta berriz ere ezustekoa: haien artean euskal herritar bakarra dago, 1919an Artzentalesen (Bizkaia) jaioetako Joaquín Rebollón Cirion.

SUKARRIETA ETA BERMEO ARTEAN, PRESOK IHESI

Trenbideetako preso esklaboek aurretik existitzen ez ziren linea berriak ere ireki edo lehendik zeudenak luzatu zituzten. Aurrena lurra prestatu behar zen, lubakiak zabaldu, tunelak egiteko mendiak zulatu, ibaiak zeharkatzeko zubiak eraiki, geltokiak eta nasak prestatu... Euskal Herrian badugu halako lanen adibiderik: Zornotzatik Sukarrietara zihoan linearen luzapena, Mundakatik barrena, Bermeoraino heltzeko helburua zuena. Aurreko kasuekin konparatuta, obra hori oso berandu egin zen, 1953 eta 1956 artean, eta Banús Hermanos izeneko enpresak azpikontratatu zituen presoak. Zabalera estuko trenbide zatiaren eraikuntzan gutxienez 60 presoren parte-hartzea dago dokumentatuta, baina ez dago behartutako langilerik identifikatuta.

Juanjo Olaizola historialariaren *Tra-bajo forzado y ferrocarril* (Lan bortxatua eta trenbidea) argitalpenaren arabera, gatibuen hasierako zeregina 500 metro-tako ibilbidea irekitzea izan zen, baina tartean hiru tunel egin behar zituzten, 310 metro lur azpitik. Geroago beste lan batzuetan ere ibili ziren presoak, errailak jartzen edo biltegiak eta geltokiak kokatzeko lurrak lisatzen. Burdinbideetako lanak egiteaz gain, preso batzuek Bermeoko portuko kaia luzatu zuten 20 metrotan. Preso horiek guztiak Urdabai inguruko lanetan aritu ziren bitartean ihesaldiak ere izan ziren, jakina, eta 1953an gutxienez bi lagunek lortu zuten ospa egitea, Olaizolak Espainiako Justizia Ministerioko hainbat dokumentutan egiaztatu duenez.

Fernando Mendiola (NUP)

“RENFE izan da autohistoria kritikoa egin duen enpresa handi bakarra”

Nondik abiatu zen proiektu hau?

Edurne Beamuntekin batera Pirinio-tako Langile Batailoien ikerketa burutu genuen. Arlo ekonomikoan sakontzen jarraituta, burdinbideen inguruan materiala egon zitekeela ikusi nuen. Aldi berean, Juan Carlos García-Funesek lan penitentziarioaren inguruko doktoretza tesia bukatu zuen. Burdinbideen Artxibo Historikoarekin harremana izan genuen eta bertatik heldu zitzaigun proiektuan parte hartzeko eskaera.

Zertan datza?

RENFEk bere langileek jasan zuten errepresioaren inguruko ikerketa abiarazi nahi izan zuen, eta behin informazioa lortuta, datuak jakinarazteko webgunea sortu. Bere langileen kontrako errepresioa eta fusilatzeak interesatzen zitzaizkien gehienbat. Gurea zeharkako atala da, langile batailoiko kideak ez baitziren trenbideetako beharginak gerra baino lehen. Hala ere, lortu dute esklaboek egitasmo handi horretan euren toki edukitzea.

Horrelako egitasmoak ez dira ohikoak...

Egia esan, ez. Askotan erakundeak eta beraien politikak kritikatzan ditugu, eta hori egiten jarraitu behar dugu, baina RENFE izan da autohistoria kritikoa egin duen enpresa handi bakarra. Iritzi aldaketaren adibidea jarriko dizuet: 2008an Altsasuko Udalak burdinbideetako obretan bortxaz aritutako langileen omenez eskultura jarri nahi izan zuen herriko tren geltokian. ADI-Fek baimena ukatu zien eta horregatik oroigarri hori hirigunearen erdian kokatu zuten, udaletxearen aurrean. Lehen baimena ukatzen zuenak orain oroimena sustatzen du.

Aldaketa handia, beraz.

Bai, gainera webgunearen aurkezpen ekitaldian, garaiko Sustapen Ministroak, Jose Luis Abalosek, damu deklarazioak egin zituen: “Adiskidetzea atzera ez begiratzea zela uste genuen. Oker ginen”. Lehenengo aldiz, PSOEko goi kargu batek, publikoki aitortu zuen trantsizioaren memoria politika akatsa izan zela.

Lanean segitzen duzue zuen ikerketekin?

Beste gai batzuk ikertzen gabiltza eta zeharka burdinbidearena ere azaltzen da. Nafarroako Erriberan milaka bortxazko langile ibili ziren eta dokumentazio hori ez dugu topatu. Ate batzuk jotzeko ditugu oraindik, agian egunen batean sorpresaren bat egongo da.

Fernando Mendiola Nafarroako Parlamentuan errepresaliatuei buruz egindako agerraldi batean.

FOKU / IÑIGO URIZ



Franco diktadoreak berak inauguratu zuen Sukarrieta eta Bermeo arteko trenbide zatia 1956ko abuztuan, iturri batzuen arabera bukatuta ez bazegoen ere. Dagoeneko zereginik gabe, hor aritu zen presoengatik langile batailoia bi multzotan banatu zuten: talde bat Madrilgo Mirasierrako destakamendura bidali zuten, eta bestea Murtziako La Unión-era, lan gehiago egitera.

Trenbideetako lan
bortxatuak kudeatu
zituen patronatu
frankistak 1995. urtera
arte jarraitu zuen
legala izaten

ISSAC ARENAL, ESKLABO BAT ALTSASUKO HERRI LANETAN

Dokumentazio faltaren edo dokumentazioa bera kontsultatzeko dauden oztopoen ondorioz, sarritan preso egondakoen testigantzak erabili ohi dira iturri gisa. Trenbideetako azpiegiturretan esklabo lanean aritu ziren gatibuen artean, Isaac Arenalen autobiografia nabarmendu dezakegu. Herri askotan ibili zuten lanean Arenal, tartean Altsasuko herri lanetan, eta *95 Batallón de Soldados Trabajadores* (Langile Soldaduen 95. Batailoia) liburuan bere bizipenak kontatzen ditu naturaltasun osoz. Sarean erraz aurki dezakegun argitalpenean, eguneroko lan gogorra aipatzen du, material astuna bizkarrean eramanez egin beharreko ibilaldi luzeak, barruraino sartzen zitzaion hotz hezea, janari urri zein txarrak ase ezin zuten gosea, lankideek pairatutako lan istripuak, zorriak, higiegi falta, diziplina gogorra, zigorrak, jipoiak, umilazioak. Lanaldiak astelehenetik larunbatera izaten ziren, goizeko 8:00etatik iluntzeko 18:00ak edo 19:00ak arte, urtaroak eskaintzen zuen argi naturalaren arabera. Igandetan meza izaten zen eta batzuetan formazio moralerako hitzaldiak ematen zizkieten. Jaieguneetan senideen bisitak jasotzen zituzten presoak salbuespena ziren.



Goiko irudian, Hernaniko trenbide zatian lanean harria botatzen 1953an. Behean, *El largo viaje* Sabin Egilior zinemagilearen dokumentalaren fotograma; Sevillako Alanis de la Sierrako hilerrian 57 euskal preso errepublikarren gorputzen bila ari dira, 1937an tren istripu baten ondorioz hildakoak.

Lan egiteko makinaria urria eta eskasa izanik, gabezia hori ordezkatzeko, gatibuen esfortzu fisiko itzela behar zen. Enpresak arropa unifikatua eskaintzen zien, derrigorrez jantzi beharrekoa, presoak erraz identifikatzeko. Mugikortasun handia zela-eta, lotarako behin-behineko barrakoiak erabiltzen zituzten, gutxieneko baldintzak betetzen ez zituzten tokiak umelak, neguan oso hotzak eta udan beroegiak. Baldintza anker horietan bizi baziren ere, langile batzuek beren borondatez segitzen zuten lanean, soldata apur

baten truke, baina gainontzekoen kondizio beretan, izan ere, espetxe zigorra beteta izan arren, erbesteratze-kondena oraindik indarrean zuten langile horiek.

Urteak aurrera joan ahala trenbideetako lan behartua gutxituz joan zen, 1957an desagertu arte. Hamarkada batzuk pasa dira baina milaka preso horiek esklabotza egoeran eraiki zutena oraindik erabilgarri dago. Azpiegitura horiei esker batzuk aberastu ziren, gu mugitzen gara eta beste askok bizitza galdu zuten. ●

Xulio Ríos

“Txinak aurrera egin eta modernizatu nahi du, eta ez mundua menpean hartu”



2021ean 100 urte bete dira Txinako Alderdi Komunista sortu zenetik. 1949tik munduko herrialderik jendetsuena gobernatzen du. Efemeride hori baliatuz, *Alda* aldizkariak Xulio Ríos (Moaña, Galizia, 1958) elkarrizketatu du, *Metamorfosis del comunismo en China* (Komunismoaren metamorfosia Txinan) liburuaren egilea.

 GORKA QUEVEDO / ALDA ALDIZKARIA  DAVIDE CABALEIRO

Hxina honezkero ez da soldata ba-xuak eta langile asko dituen herrial-dea besterik. Lehen, Mendebaldeko multinazionalak han etekinak gi-zentzen zituzten, hemen eskubideak murritzeko. Orain, Txina da adimen artifiziala, telekomunikazioak, krip-tografia edota gerra elektronikoa ho-bekien garatzen ari den herrialdea. Txinaren helburua modernizazioa da. Eta badaki ez duela helburu hori lortuko munduko fabrika izanik, baizik eta mun-duko abangoardia teknologikoa izanda. Dengismoak 1978tik 2012ra arte iraun zuen, eta herrialdearen garapen handia ahalbidetu zuen. 1978an, Txina mun-duko 38. potentzia ekonomikoa zen; 2011tik aurrera, bigarrena da. Hori ga-rapen eredu jakin batetik abiatuta lortu zuten: eskulan merkea, atzerriko inber-tsioa eta ekoizpena kanpora bideratuta. Orain, Alderdi Komunistak uste du ere-du horrek ez diola bermatzen herrialde moderno eta oparo bilakatzea.

Zer esan nahi du garapen eredu berri horrek?

Politika aldatu dute. Lehen baztertu zi-tuzten faktore batzuk –alderdi soziala, ingurumenarekin lotutakoa edo tekno-logikoa– lehen lerrora ekarri dituzte egun. Munduko 5G estazio guztien %70 baino gehiago daude Txinan. Oso aurre-ratuta daude industria iraultza berria-ren esparru jakin batzuetan, eta Txinak prozesu hori gidatu nahi du. Horrek azaltzen du zergatik diren hain gogorrak Txinak AEBekin dituen tentsioak sek-tore teknologikoan, Huawei-rekin ikusi dugun bezala.

Txinak teknologia arloan posizio au-rreratua lortu du denbora txikian eta pronostiko guztien aurka. Askok zioen politikoki zurruna den sistema batek sormena itotzen duela. Bada, inbertsio publikoari eta diskurtso nazionalari es-ker azkar antzean abangoardian jartzea lortu dute. Prozesu horren buru izan nahi du, badakielako herrialdearentzat



nahi duen modernizazioa arlo horretan lehiatzen ari dela. Txinak badaki soldata txikiek ez dutela etorkizunik.

Barne kontsumoak garapen faktore bihurtu behar du. Horrek esan nahi du jendearen poltsikoak bete behar direla. Txinako soldatak batez beste %7 edo %8 igo dira azken urteotan, eta askoz gehiago hazi behar dute aurrerantzean, arlo sozialari begirako inbertsio publi-koa bezalaxe. Txinan argi dute garapen eredua aldatu behar dela, eta horrek esan nahi du diru-sarrerak hobetu behar



Xi Jinping presidentea
pantaila erraldoi
batean Txinako
Alderdi Komunistaren
100. urteurreneko
ekitaldietako batean.

REUTERS

dituztela, baita arlo soziala, ingurumenekoa eta teknologikoa ere.

Zenbat denbora aurreikusten dute aldaketa gauzatzeko?

30 urteko prozesua da. Plangintza horri esker, Txinak aldaketa handirik gabe lor ditzake helburu horiek. Plan bat dute 2035erako eta beste bat 2049-50erako, modernizazioaren helburu historikoa lortzeko. Esparru ekonomikoan ez ezik, sistema politikoan ere zenbait aldaketa ekarriko du.

Baina hemen funtsezko gaia garapen ereduaren aldaketa da. Horretarako kalitate handiagoa duen garapena lortu behar dute, eta horrek askotan hazkundea moteltzea eskatzen du. Askotan esan izan dugu: "Txina jada ez da %10 edo %9 hazten ari, orain %4 edo %6an ari da, eta horrek esan nahi du Txinako ekonomia krisian dagoela". Ba, ez du zertan. Erreiz aldatu behar duzunean, abiadura murriztu behar duzu, bidetik ateratzeko arriskurik nahi ez baduzu. Txinan, askotan, hazkunde erritmoa mo-

teltzea planteatzen da, segurtasun handiagorekin eredua aldatzeko.

Txinak munduan zehar hedatu nahi du, eta horretarako erabiltzen ditu merkataritza -Zetaren Bide berria-, atzerriko inbertsioak edota finantzak -herrialdeen zorra erostea-. Hala ere, ez du inolako base militarrik bere mugetatik kanpo.

Tira, bat badu, Djibutikoa. Baina nagusiki logistikoa da, ez base militarra. Txinak badaki bere egonkortasuna eta

garapena ezin direla egiaztatu munduko gainerako herrialdeetatik kanpo, baizik eta gainerako herrialdeekin komertzializatu, garatu eta trukatu behar duela. Gaur egun 120 ekonomia baino gehiagoren lehen bazkide komertziala da. Kanpo politikan gai funtsezkoena ekonomia da, horregatik Zetaren Bidearen garrantzia eta abar. Luzera begira Txinak badaki ordena globalean lekua ezarriko duena botere ekonomikoa izango dela, ez botere militarra. Ekonomia hondatuta baduzu, ezin duzu armada mantendu. Baina, bestalde, Txinak oraindik asko du egiteko.

Zer esan nahi duzu?

Txina munduko bigarren ekonomia da. Termino absolutuetan lehena izan daiteke bospasei urte barru, baina hala ere, Txinari ibilbide luzea egitea falta zaio. Per capita BPG 10.000 dolar pasatxo da; AEBetako 60.000 dolar. Gobernuaren helburua da hamabost urte barru per capita BPG 30.000ra igotzea, hau da, gaur egun AEBek dutenaren erdira. Txinan 600 milioi pertsonak baino gehiagok – AEBetako biztanleriaren bikoitza – 1.000 yuanekeo diru-sarrerara du hilean: 150 euro baino gutxiago.

Txinari asko falta zaio gizarte egonkor eta oparoa izateko, zeinean azken 30-40 urteetan sortutako aberastasun horrek, zirimiria bailitzan, herritar guztiak benetan bustiko dituen. Txinan desberdintasun handia dago. Duela 20 urte, biztanleriaren %1ak aberastasunaren %20 zuen; gaur egun, %1 hori aberastasunaren %30ren jabe da. 1978an, Gini-koefizientea 0,16koa zen; gaur egun, 0,46-0,47koa da. Gainera, oparotasun partekatua diskurtsoa gorabehera, gorantz egin du.

Hain dira handiak Txinak dituen erronkak, ezen kudeaketa publikoaren zati handi bat barnera bideratu behar duen, eta ez kanpora. "Txina potentzia hegemonikoa da, mundua menderatu eta konkistatuko duena", entzuten da sarri. Nire ustez, hori ez da Txinaren asmoa, ezta gutxiago ere. Ez dakigu etorkizunean hori horrela izango den, baina datozen 30 urteetan Txinaren barne agenda oso garrantzitsua izango da, eta bere arretaren zati handi bat barne-zeregin horietara bideratuko du, nahiz eta nazioartean duen pisua handituko den. Eskalak aldatu egiten dira, baina Txinaren asmoa da 2035erako 800-1.000 milioi pertsonak osatzea klase ertaintzat joko genukeena. Klase ertainik ez badago, ez dago kontsumorik. AEBekin,



Europarekin edo Japoniarekin merkataritza gerra batean murgilduta bazaude, kontsumoa erortzen bada eta alternatibarik ez baduzu, ba...

Barne merkatuaren zeregina oso garrantzitsua da, biztanleria oso handia baita Txinan. Hilean 1.000 yuan kobratzen dituzten 600 milioi pertsona horiek beren diru sarreraren maila handituko balute, AEBetako biztanleriaren bikoitza bat-batean merkatura gehitzea bezalakoa izango litzateke.

“Arazoa ez da Txinaren garapena, subiranotasun nazionalen duen enfasia baizik. Txinak partekatuko balitu Mendebaldeko ekonomia liberalek sustatzen dituzten ikuspegi berberak, ez litzateke tentsiorik izango”



Nolakoa da langileen antolaketa Txinan? Zer eginkizun dute sindikatuek?

Funtsezko egitura bat dago: Txinako Sindikatuen Federazio Nazionala. 300 milioi langile inguru biltzen ditu, sektore publikokoak zein pribatukoak. Sindikatuen zeregina edozein gizarte sozialistatan dutenen antzekoa da: langile klasea

kokatzea, politika ofizialak eta alderdiak esparru horretan dituen politikak bidegarri egiteko.

Lan gatazkak daudenean kasu gehienetan sindikatuen zeregina bigarren mailakoa da. Sindikatua langileei zerbitzuak ematen dizkien ministerio moduko bat da. Gatazkak daudenean langileek gehienetan bi modutara kudeatzen dituzte. Batetik, langileak sindikatu ofizialetatik kanpo antolatzen dira. Bestetik, Gobernu Kanpoko Erakunde gisa diharduten zerbitzu plataformen edo langileei euren aldarrikapenak kudeatzen laguntzen dieten lan-aholkularitzen bidez antolatzen dira. Erakunde sindikal ofizialen zeregina nahiko mugatua da. Bere pisu politikoa ere txikitu egin da.

Gaur egun, gatazkak sailhestea da sindikatuen zeregina. Horretarako lantegietan eta enpresetan prebentzio-lana egiten dute. Gatazka sortzen denean horiek leuntzen saiatzen dira, eta batzuetan enpresen alde egin dezakete. Horregatik sindikatuek errekonozimendua galdu dute langile-klasearen aurrean. Langileen auto-erakunde puntualek edo egitura ofizialetatik kanpoko lan-aholkularitzek protagonismoa irabazi dute. Auto-antolaketak eta aholkularitzek ekintza sindikal ofizialak utzitako hutsunea bete dute gatazketan.

Gaur egun Txinaren erronkarik handiena desberdintasunaren aurkako borroka al da?

Desberdintasunak arazo handienetako bat dira, eta, agian, arlo horretan gobernuaren jarduna apalagoa izan da. Herrial-

deak ezarritako hiru erronka handietatik –teknologikoa, ingurumenekoa eta soziala–, lehen bi alorretan ekintza irmoa izan da, eta emaitzak nabariak eta oso azkarrak izan dira. Hala ere, gizarte arloan haren jardura ez da hain sendoa izan, Hu Jintaoren garaitik erretorika handia eta konpromisoak hartu zituzten arren.

Horren guztiaren isla Giza Garapenaren Indizea (GGI) da. Txina munduko bigarren potentzia ekonomikoa da, baina GGIaren arabera, 189 herrialdetatik 85. postuan dago. 600 milioi pertsonak 150 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak dituzte hilean. Horrek agerian uzten du oraindik asko dutela egiteko. 1.400 milioi biztanle dituen herrialdea da eta ezin da miraririk egin egun batetik bestera. Desberdintasunen eta arlo sozialaren auzia erronka garrantzitsuenetakoa bat da, eta egonkortasun politikoari ere eragin diezaioke.

Nola egiten dio aurre Txinak klima aldaketaren erronkari?

Aldaketa nabarmena izan da. 1990eko hamarkadan ondorengoa zen politika: “Lehenik zikindu eta gero garbitu”. Txinan zioten bezala, “orain garrantzitsuen haztea eta garatzea da, eta alboko eta bigarren mailako kalteez aurrerago arduratuko gara”. Mende honetan jarrera nabarmen aldatu da. Lehenik eta behin, ingurumen erronkak eta horiek industria-, ingurumen- eta osasun-eremuan dituzten ondorioak kontuan hartuta kudeatzen dituzte barne politikak. Gaur egun arazo horri aurre egiteko konpromisoa

dago, baita, jakina, nazioartean erantzukizun eta konpromiso handiagoak hartzeko beharra ere. Txinak klima aldaketari buruz duen ikuspegi bilakaera oso azkarra izan da, eta nahiko zorrotza.

Mendebaldean jende asko Txinako gorakadaren beldur da. Justifikatuta al dago?

Begi bistakoa da tentsioak egon badaudela, eta gainera azken urteotan areagotu egin direla. Arazoa ez da Txinaren garapena, arazoa da Txinak subiranotasun nazionalen duen enfasia. Mendebaldeari ez litzaioke axolako Txina herrialde garatua izatea, Japonia moduko bat, gaitasun ekonomiko eta industrial handikoa, baina politikoki nanoa dena eta AEBei edo Mendebalde liberalari nagusitasuna borrokatuko ez diena. Arazoa ez dago garapenean, subiranotasunean baizik. Txinak G-8arekin bat egingo balu edo Mendebaldeko ekonomia liberelek sustatzen dituzten ikuspegi berberak partekatuko balitu, ez litzateke tentsiorik izango. Arazoa da Txinak beste bide bati jarraitzen diola. Bide hori eremu politiko, ideologiko eta ekonomikoan ez da liberala, eta Mendebaldekoaz bestelako egitura eredu bat proposatzen du.

1945eko mundua ez da 2021ekoa. Txina oso aktore garrantzitsua da, baina horrek ez du islarik gobernantza globalean. Txinak Munduko Bankuan edo Nazioarteko Diru Funtsean bere dimentsioarekin bat datorren partaidetza kuo-

ta izatea eskatu duenean, Mendebaldeko herrialdeek oztupoak jarri dituzte beti.

Horrek ondorio garrantzitsuak izan ditzake datozen urteetan. Azken 500 urteetan munduko hegemonian izandako aldaketak nola gertatu diren aztertuz gero, kasu gehienetan indarkeriaren bitartez etorri dira. Auqus, Cuad eta Txinaren inguruan planteatzen ari diren egitura militar horiek guztiek –arazoak handitzen ari dira Taiwanen, hegoaldeko Txinako Itsasoa edo Japoniako ekialdeko itsasoan...– eragin dezaketen egoeraz ez genuke arinkeriak jokatu beharko.

Arrazoi gehiago ala gutxiagorekin, ohikoa da Mendebaldeak Txinari aurpegiatzea giza eskubideen inguruan dituen gabeziak. Nola bizi du Txinak kritika hori?

Txinan, jakina, oso gabezia argiak dauka giza eskubideen arloan. Herrialde barruan, ordea, gaia ez dago lehentasunen zerrendaren buruan: lehentasun nagusia bizi-maila hobetzea da oraindik, eta, beraz, Txinako gizartearen sistema politikoaren egiturazko aldaketak planteatzen dituzten sektoreek eragin txikia dute politikaren egiazko bilakaeran.

Horrek ez du esan nahi X urte barru egoera hori aldatuko ez denik, eta behin arlo sozial eta ekonomikoan hobekuntzak gertatzen direnean, beste eskaera mota batzuk planteatuko ez direnik. ●



ZORRAREN GURPILEAN

Emakume migratzaileen zama amaiezina

Emakume etorkinen zor amaiezina: nazioaz gairikoa
Euskal Herriak, pandemiaren ondorengo munduan ikerketa aurkeztu du Silvia Carrizo Fernandezek oraintsu. Lanak emakume migranteen zorra du ikergai; arlo ekonomikoan ez ezik, migratu beharrak emakumei arlo pertsonalean zer-nolako oinazea utzi dien aztertu dute. Zama indibiduala arindu eta izaera kolektiboa eman nahi izan diote txostenari, gutxiago edo gehiago, antzera erasaten baitie zorrak parte-hartzaile guztiei.

 MIREN OSA GALDONA  DANI BLANCO

29 emakumek hartu dute parte ikerketan. Adinari dagokionez, parte-hartzaileen %62k 31 eta 50 urte artean ditu, %33k 51 urte baino gehiago eta %5ak 18 eta 30 urte artean. Ikasketei dagokionez, berriz, %62k bigarren hezkuntzako ikasketak ditu, %29k goi-mailako eta unibertsitateko ikasketak eta %6k oinarrizkoak. Nikaragua, Honduras, Argentina, Kolonia eta Txileko emakumeek eman dituzte testigantzak, besteak beste, eta ia erdiak hamar urte baino gehiago daramatza Euskal Herrian bizitzen. Malen Etxea elkarteari lotutakoak dira guztiak. Malen Etxeak urteak daramatza emakume migratuen eskubideen alde lanean. Azken urteetan, hainbat ekimenen artean, lan esklaboa behin betiko amaitu dadin aldarrikatzen ari dira; emakume etorkin bat asteko zazpi egunetan 24 orduz lanerako prest eta enplegatzailearen zerbitzura egon beharra errotik mozteko borrokan ari dira. Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokiaren datuen arabera, EAEko etorkinen lan-merkatuak emakume profila du batik bat, eta laguntzari lotutako

sektore oso zehatz batean dihardute. Sektore horretan, hiru lurretan bizi diren 200.000 atzerriarren %53 emakumeak dira, eta bitik bat etxeko lanak eta zaintza pertsonalak egiteko kontratatzen da.

“Nola egiten dudan? Ez dakit...Ez dakit nola egiten dudan arazo guztiak konpontzeko, guztiak estaltzeko, ezer gabe geratzen zara, baina pozik geratzen zara... guztiekin konplitu duzu, pixka bat bada ere. Une honetan nire mende aita, ama, nire bi anaia, senarra eta seme-alabak ditut”. Ikerketan parte hartu duen emakumeetako baten ahotsa da. Gaintontzeko partaideek bezala, “bakardadea, beldurra eta ezinegona” ditu eguneroko emozio. Txostenaren egileak zorraren kontzeptua zabaldu nahi izan du, ez baitute soilik arlo ekonomikoaz hausnartu, migratu beharrak norbanakoari utzi dizkion gaintontzeko albo-kalteak ere kontuan izan dituzte. “Maite ditugunak ezin besarkatzeaz eta senideak faltan hainbeste sumatzeaz ere ari gara zorra amaiezina dela diogunean”, dio parte-hartzaileetako batek.

Txostenaren ondorio nagusia zera da: adinak, hemen daramatzaten urteek,

egoera administratiboak, prestakuntza mailak, jatorriko herrialdeak eta larruazalaren koloreak eragina du emakumezko langile etorkinek biziraupen dinamikak birdefinitzeko orduan, maila pertsonal nahiz kolektiboan. Hau da, jatorriak, arrazak eta sexuak erabat baldintzatzen die migratu osteko bizi proiektua. Aipatu behar da, parte hartu duten emakumeen artean bakar batek ere ez zuela jatorrizko bizitokia utzi hala nahi zuelako, “beste erremediorik gabeko” erabakia izan zela diote, “halabeharrez” hartu behar izan zutena. Mutur askoko korapiloa osatzen dute jatorrizko herrialdeetako egoera sozioekonomiko kaskarrak, indarkeriaz inguratuta bizitzeak, zerbitzu publikoen deuseztatzeak eta Ipar hemisferioko herritarren ongizatea bermatzeko emakumeak kontratatzea ohiko izateak. Migrazioa izan ohi da mataza askatzeko soluzioa.

Epe laburrean, dinamika hori amaitzea “ezinezkotzat” jotzen dute, Ipar hemisferioko gizartearen ongizateak Hego hemisferioko emakumeen beharra areagotzen baitu; ez dago zaintzarako estrategia integral garaturik Euskal Herrian. Hori gutxi ez eta sistema patriarkalak ezarritako genero bereizketak ez ditu oraindik gizonak adineko pertsonen zaintzan inplikatu, eta ondorioz, gabezia hori emakume etorkinek betetzen dutela berretsi du ikerketak. Datuak argigarriak dira: Euskal Autonomia Erkidegoan 263.000 lagun inguru bizi da bakarrik, horietatik 112.531 pertsona (%43ak) 65 urte edo gehiago ditu. Eustaten azken datuen arabera, 77.580 pertsonen egunero behar dute zaintzaile bat. Errealitate horretan dago emakume etorkinen ehuneko handi baten gizarteratzea eta integrazioa.

JATORRIA SOSTENGATZEKO BEHARRA

Txostenean parte hartu duten emakume etorkinentzat migratu aurretik hasi zen zorpetuta egotearen prozesua, errentagarritasunik sortu ez zuten ekimenen ondorioz edo bidaiatzeko eskatutako kredituen ondorioz. Lehen urteetan baliabide guztiak kontsumitu zituzten, eta aldi berean, handitu egin ziren etxebizitzaren, osasunaren, elikaduraren eta hezkuntzaren alorreko premiei erantzuteko beharrak. Emakume partaideen artean %57k zorra egin zuen bidaiari ekiteko, besteak beste. Hainbat partaidetik jatorriko herrialdean zuten etxea zorpetu zuten kredituak eskatzeko, eta zor hori ordaindu ezean euren senideak bizi diren tokia kenduko dieten beldur dira. Behin helmugako herrialdera iritsita, zorraren zuloa hazi baino ez zaie egin, lan baldintza prekarioek eta soldata eskasek ez baitiete aukerarik ematen ezer aurrezteko: “Ni asko kezkatzen ninduen zorrak, hipotekatu nuen etxea ez zelako nirea, aitarena baizik. Dinamika batean sartzen zara, zorrak ordaintzeko bakoarik bizi zara ia. Ez nuen ezer gastatzen, arropa erabilia janzen nuen, ez nuen kafe bat ere hartzen. Hiru urte inguru pasa nituen zorra ordaintzen. Zorrarekin gatozen pertsonak ez gara bizi”, dio 58 urteko emakume nikaraguarrek.

Etxebizitzari dagokionez, Gipuzkoan bizi diren parte-hartzaileen %45ak onartu du baduela bizitzeko tokia: %20rentzat, espazio hori lantokian dago, hau da, adineko pertsonak zaintzen dituzten etxeetan bizi dira; %70a berriz, alokatutako etxebizitzan bizi da, eta gainerakoek ez dute errentarik ordaintzen bizi diren tokiagatik. %55ak logela bat baino ez du bere eguneroko bizitza egiteko. 59 urteko txiletararren hitzetan, euren egoeran “ezinezkoa da” etxebizitza izatea, gauza asko sakrifiku arren soldatek ez baitiete marjinarik uzten etxe propio bat izateko: “Lan asko egin arren, zorte pixka batekin partekatu besterik ezin dugu egin”. Gainera, azken urtebetean, parte-hartzaileen erdiak baino gehiagok zorrak egin ditu sorterrira egin beharreko diru-bidalketei eusteko.

ALIATUEN INPLIKAZIOA, FUNTSEZKO TRESNA

Zorraren gurpila gelditzea zaila bilakatzen dute egungo gizartearen egituraketak, zaintza publikorako sarearen gabeziak eta lan prekarizatuaren alternatiba ezak. Azken hamarkadan, halere, mugimendu feministak ahalegin eta lan handia egin duela diote parte-hartzaileek, agendaren erdigunean txertatu baita zaintzaren gatazka eta esplotazio lanekin amaitzeko beharra. Dena den, txostenak ondorioztatu du emakume migratzaileen per-

tzepzioa dela euren eskubideak ez direla agenda feministaren “lehentasunezko gai izatera iritsi”, ez eta euskal ezkerreko koalizioaren agendarenak ere. Aliatuak diren sektoreetan indar eraldatzailerik ez lortzeko arrazoiei begira, aliatu horien familietako adinekoen arreta estalia izateko beharra aipatu da. Parte-hartzaileentzat, sektore horietako gizon-emakumeek, gainerakoek bezala, merkatu libre globalizatuan bilatzen dute etxeko zaintzaren irtenbidea, nahiz eta beren printzipioekin eta ideia politikoekin kontraesanean erori. “Ez dago koherentziarik. Jabetzen dira, baina norbait behar dute irabazten dutenaren erdia edo gutxiago ordainduta ama 24 orduz zaintzeko, ez baitiote zaintzagatik beren bizitza antolatuari uko egingo”.

Aldarrikatu dute barneko lana desagerrarazteak lehentasuna izan behar duela agenda feministan, eta Euskal Herriko herritarrek jarri behar dutela gaia agenda politikoan, botoa emateko eskubidea dutelako, emakume etorkinek ez bezala. Gainera, gogoratu dute, emakume etorkinak ez dabiltzala “tutore” bila, aliatu bila baizik, esklabotzaren pareko lan baldintzak amaitzea beraien borroka baita. “Argi dugu gure eskubideak guk lortu behar ditugula, baina gainontzeko emakumeen ahizpatasuna funtsezkoa da aurrera egiteko”, azpimarratu du Malen Etxeko kideetako batek. ●



“ ”

Gasteiz Belarriprest hiria bihurtu behar genuke

Alex Vadillo

Ikasle garaian bere ibilbide profesionala ingeniartzara bideratzeko asmoa zuen arren, beste aukera batzuk bidean agertu, eta euskarari lotutako ibilbide esanguratsua egin du ordutik Alex Vadillok. AEKn 15 bat urtez, lehenik, eta Gasteizko Udaleko Euskara Zerbitzuan beste 18 urtez, oraingoz, aritu ostean, esperientziatik mintzo da euskara teknikaria Arabako hiriburuaren bilakaeraz, administratibotik egiten den lanaz eta euskararen biziberritzeaz.

ASIER BASURTO ARRUTI DOSPORDOS

Gasteizko Udalean urte dezente daramazu. Nola heldu zinen? Zein ziren zure egitekoak orduan? Eta nola aldatu dira?

Ingeniaritza ikasten ari nintzen bitartean hurbildu nintzen euskararen ingurura, unibertsitatean kultur ekintzak antolatzen zituzten zenbait talderen bidez. Karrera bukatzean, nire arloan lana bilatzen ari nintzen bitartean, AEKn zebilen lagun batek komentatu zidan zerbait atera arte klase batzuk emateko aukera nuela. Horrela hasi eta konturatu ordutako hamabost urte eman nituen bertan. Horren ostean ingeniartzara bueltatzea ezinezkoa zen. Aukera izan nuen Euskara Zerbitzura pasatzeko. Bertan hasi nintzen orain dela hemezortzi urte. Bertigo pixka bat ematen dit orain, atzo goizean izan zela iruditzen baitzait.

Garai hartan udaletxeetan plan estrategikoa martxan jartzen ari ziren, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren ildotik. Horretara sartu nintzen. Hiru belaunaldi egon dira euskara zerbitzuetan. Lehenengoari gauzak arautzea tokatu

zitzaion: ordenantzak, zerbitzuak, itzul-pengintza, euskara ikasteko ikastaroak, dirulaguntzak... Antolaketa mailako kontuak gehienak. Gu sartu ginenean topatu genuen Euskara Zerbitzuan langileak euskalduntzeari oso lotuta zeuden; euskara ikastaroak ematen zituzten (gurasoentzat batez ere), baina euskara kalean sustatzeko dirulaguntzak ere bazen.

Iritsi ginenean, enkargua izan zen: “euskalgintzako eragileekin bildu behar zarete eta 4-5 urterako plan estrategikoa egin behar duzue”. Garai horretan Kontseilua ere bere plan estrategikoa egiten ari zen. Orduan ikasi genuen zer zen AMIA bat eta ordutik AMIAk leku guztietan agertu zaizkigu.

Denborarekin konturatzen zara plan estrategikoa batetik bestera helburuak errepikatzen direla, berrikuntzak behar direla eta berrikuntzak beste nonbaitek helduko direla. Gakoa da gizartearen dinamizazioa nola egin, gizarte dinamika nola sortu... Alde horretatik gobernantzaren ideia oso indartsua da. Guk

bizi izan duguna trantsito edo trantsizio bat izan da horrantz.

Urte hauetan aldaketa politikoak izan dira udalean. Alde handia al dago udal-gobernu batetik bestera? Nolakoak dira gobernu aldaketa une horiek?

Trantsizio guztietan geldialdi txiki bat gertatzen da. Gobernuan dagoen alderdia ere aldatzen denean, badauka eragina; ez dugu gezurrik esango. Alderdi bakoitzak lan egin behar duzun markoa jartzen dizu, baina desmitifikatu egin behar da. Gobernu aldaketa eragina hor da, baina baita ardura duen zinegotziarena: zein borondate duen, zein joko ematen duen teknikariek lan egiteko... Garrantzitsua da ere ea euskara zerbitzuak bultzatzen duen ildoak zenbateko babesa duen gizartearen aldetik eta ea zenbateraino izan den adostua oposizioarekin. Gauza horiek guztiak ondo zaintzen badira, aldaketak nabaritu arren, erlatibizatu behar dira. Beti dago lan egiteko tarteak.



Zenbaterainoko aukera du euskara zerbitzuak udaleko eta administrazioko beste ataletan eragiteko? Nolakoa da harremana gaur egun?

Zehar-lerrotasuna neurri batean hitz totema bihurtzen da. Batetik, badirudi dena izan behar dela zehar-lerro, departamentu guztietan hizkuntza politika egitea lortu behar dela. Baina bestetik, egia da politika publiko batzuk ezin direla gauzatu departamentu bakar bate-tik. Aniztasunaren gaiarekin ere horrela gertatzen da. Ez da inorena, baina guztiona da. Kontua ez da hizkuntza politika departamentu guztietan egitea. Departamentu batzuk bildu egin behar dira politika integralak egiteko eta horren barruan egon behar da hizkuntza politika. Eta hori konplikatu da. Bizi izan duguna da aurrerapausoak eta atzerapausoak tartekatzen direla etengabe. Zerikusi handia dute udalaren barruan josten diren harremanek.

Kanpotik begiratuta, duela hamarkada batzuk ez genuke

“ ”

Garrantzitsua da ea euskara zerbitzuak bultzatzen duen ildoak zenbateko babesa duen gizartearen aldetik eta ea zenbateraino izan den adostua oposizioarekin

Gasteiz euskararekin lotuko. Baina azken urteetan euskararen inguruko ekimenen eta proiektuen berri iristen zaigu bertatik. Zerbait aldatzen ari da?

Euskararen presentziari dagokionez, hainbat urtetan oso lan polita egin da. Neurri handi batean hezkuntzaren bitartekotik etorri da lan hori. Eta euskalte-

gien lana ere oso inportantea izan da. Geunden lekutik gauden lekura horrenbeste jende euskaldundu izana bi faktore horien eskutik heldu da. Gaur egun euskaraz ulertzeko gai diren herritar-rak %49 inguru dira. Aldaketa handia egon da. Gazteei begiratzen badiegu, 35 urtetik beherakoan lautik hiru dira euskaraz ulertzeko gai. Bestelako dinamikak sortzeko gaitasuna eta aukera ematen du.

Euskaraldiaren bueltan, saiatu ginen azpimarratzen Gasteizen belarriprest rola zabaltzeak ireki ditzakeen ateak. Leku bat baldin badago potentzial hori duena, Gasteiz da. “Belarriprest hiria” bihurtu behar genuke. Horrek aukera emango luke euskararen erabilera asko handitzeko.

Euskalgintzaren presentzia handia da. Hasiera batean eskolekin batera euskaltegiak izan ziren euskalgintzaren motoreak. Horren ondoren euskara elkarteak, Kontseilua, Euskal Herrian Euskaraz eta bestelako erakundeak sortu ziren eta euskalgintza sendoa osatu zuten. Bidean krisiak eta gorabeherak

izan dira, baina orokorrean dinamika indartsua eduki du.

Ikuspegi kuantitatibotik Gasteizek bere burua nola euskaldundu duen ikusgarria da eta oso zaila da horrela-ko beste kasu bat aurkitzea European eta munduan. Baina horrek badauka beste buelta bat. Gasteizko euskaldunak gazteak dira, askok eskolan ikasi dute euskara eta seguraski erraztasun handiagoa dute gaztelaniaz egiteko. Eta ikuspegi kualitatibotik antzematen dira ahultasun batzuk kontuan hartu behar-rekoak. Gaur egungo errealitatea lehenagokoa baino hobea da, baina kontuz, ezin gara triunfalistikak izan. Hemen zeregin handia dago.

Eskolan euskaldundutako gazte horiei dagokienez, gako berezirik ikusten duzu?

Espazioak eta harreman sareak dira gakoak. Euskaraz funtzionatzen dutenak eta gustagarriak. Gauza batzuk egin ditzakegu, baina haiek egin behar dituzte arrakastatsu izango badira. Era berean, kontzientzia sortzeko oinarri batzuk jarri behar ditugu. "Hemen gaude eta honen alde batera edo bestera jo dezake zuek hartzen dituzuen erabakien arabera. Jakizue nondik gatozen eta non gauden eta horren arabera erabaki".

Gaur egun gazteekin gauza batzuk euskara hutsez egin daitezke. Aipatu dugu, 35 urtetik behera lautik hiruk

ulertzen dute eta adinean behera joanez gero, %90era ere iritsi gaitezke.

Osasuntsu ikusten duzu euskararen aldeko mugimendua hirian?

Hezkuntza askotan ez da euskalgintza-ren parte gisa ikusi, baina hori mugimendu polita dago: ikasleen euskara batzordeak, Ulibarri programaz arduratzen diren teknikariak, guraso elkar-teak... Auzoetako euskara elkarteak sortzen hasi dira. Eta gero, nabarmendu behar da bete-betean euskalgintza bezala ulertzen ez dugun hori, bestelako helburuen artean euskararena ere lantzen duten elkarteak. Eta hori sartzeko orain eman behar ditugu urratsak. Era zabalean euskalgintza bezala ulertu daitekeena Gasteizen sartzeko. Topagunea ari da horretan eta Udala ere bai. Badago zeregina. Beti egon da saretzea eta konexioa, baina badago lana oraindik.

Alea aldizkaria da beste fenomeno interesgarri bat. Hamar urte inguru dira martxan dagoela. *Geu* aldizkariak utzitako hutsunea bete zuen eta gaur egun funtsezko papera betetzen du Araban eta Gasteizen.

“ ”

***Hizkuntza aniztasuna
islatzea ona da
euskararentzat,
hizkuntzekiko interesa,
errespetua eta ardura
zabaltzeko balio duelako***

Nola heldu behar genioke hizkuntza-aniztasunaren gaiari?

Jatorri eta hizkuntza aniztasuna asko handitu da Gasteizen azken urteetan eta gaiarekiko kezka agertu da. Carme Junyenten aipu bat atera izan dugu gai honetaz mintzatzean: "Elebitasun testuinguruan hizkuntza txikiak galtzeko aukera guztiak ditu; agian hizkuntza aniztasun egoera batean aurrera egiteko aukera gehiago du". Ez digu kalte egiten. Kontrakoa, ona da euskararentzat aniztasun hori islatzea, hizkuntzekiko interesa, errespetua eta ardura zabaltzeko balio duelako.



Hiriek paper berezitua dute euskararen biziberritzean?

Esan izan da hirietan jokatzeko delak euskararen biziberritzea. Kopuru aldetik jendea bertan biltzen da eta gehiago biltzen ari da. Harreman sareak konplexuagoak dira eta zerbitzuak bertan pilatzen dira. Hirien konplexutasun hori ikusita, euskalgintzaren izaera handitzeko apustua egin behar genuke. Euskararen inguruan espreski lan egiten duten taldeez aparte, arlo guztietatik euskararen biziberritzea indartuko duten lidergo berriak bultzatu behar genituzke. Merkataritzaren eremuan, lantegietan, aisialdian edo beste edozeinetan euskararen aldeko paper aktiboa izatea sektoreko eragileek. Euskalgintzan periferikotzat joko genituzkeen talde horiek hirian zentroak gertuago kokatu behar genituzke, lehen aipatutako harremanen konplexutasun hori kontuan hartuta.

Tokiko markotik harago, hizkuntza politikaren gobernantza modu partekatuan egiteko aukera zabaltzen ari da?

Neurri batean gertatzen ari da. Pauso batzuk ematen ari dira. Horrek ez du esan nahi tirabirarik eta gorabeherarik egongo ez denik. Ikuspegi desberdinak dituen jendea elkarrekin lanean jartzen denean tirabirak sortuko dira, kontraesanak sortuko dira eta desadostasunak sortuko dira. Kontua da hori nola kudeatzen den. Adostutako gutxieneko batzuen inguruan lan egin behar da, jakinda kritikak eta desadostasunak sortuko direla eta hori onartu behar dela. Egiten ari da, baina gehiago egin beharko da, zalantzarik gabe.

Hizkuntza politikari dagokionez, norantz ari da mugitzen gizartea: adostasunak handitzerantz ala desadostasunerantz?

Gizartean galdera batzuk ez dira egin. Nolako gizartea nahi dugun zehaztasunez definitzen hasten bagara, desadostasunak azaleratuko dira. Baina gaur egungo egoera diagnostikatzen eta norabide bat erabakitzen saiatzen bagara, seguruenik adostasunerako aukera gehiago izango dugu.

Soziolinguistika ikerketak eta garapen teorikoak jarraitzen dituzu. Nabarmenduko zenuke arreta jarri beharreko korrante edo ideiarik?

Jakin-minetik jarraitzen ditut horrelakoak. Euskara biziberritzearen inguru-



ko teoria gizarte eraldaketarako teoria izango da ezinbestean. Hizkuntza biziberritzea eraldaketa soziala da. Gaur egun ateratzen diren ikerketek eta lanek lotura horri begiratzen diote. Soziologiarekin lotuta, berrikuntza sozialarekin eta baita administrazio publikoaren teoriarekin ere. Hori guztia kontuan eduki behar da, euskararen biziberritzean eragina duelako.

“ ”

Hau aldatzeko modu bakarra bada jende aktibo kritiko multzo handi bat izatea, nola egiten duzu hori lortzeko?

Duela urte batzuk uste genuen gaiaren inguruan argitaratzen zen guztia irakurri genezakeela. Gaur egun ezinezkoa da. Zorabiatzekoa da dagoen dinamika guztia jarraitzen saiatzea.

Aktibazioaren inguruan egiten ari diren lanak oso interesgarriak egiten zaiz-


kit. Hau aldatzeko modu bakarra bada jende aktibo kritiko multzo handi bat izatea, nola egiten duzu hori lortzeko? Hor badago gako bat.

Politika publikoak eta gizarte aktibismoa modu arrakastatsuan konektatzeko eredurik ezagutzen duzu?

Ekologismoarekin adibidez badago paralelismo bat. Badago kezka bat administrazio publikoan, urte asko daraman aktibismo bat, gaia gero eta serioago hartzen duen arlo akademiko bat... Arazoak ere antzekoak dira: erritmoen inguruko desadostasunak, hartu beharreko neurrien ingurukoak... Eta zer egin beharko litzatekeen jakinda ere erabakiak hartzeko ezintasuna. Paralelismoa ikusten dut, baina ez dakit hortik asko ikasi dezakegun.

Feminismotik ere, aktibazioaren inguruan, asko dugu ikasteko. Topiko bat bihurtzen ari da hau esatea, baina azken urteetan errepaso bat eman dute eta badugu zer ikasia. Azken urteetan feminismoaren eta euskalgintzaren arteko loturaz hainbat saio eta hitzaldiren berri izan dugu, baina duela gutxi Gorbeialdean feminismoari eta euskalgintzari ekologiaren hirugarren hanka sartu zioten eta gauza interesgarriak atera ziren. Horri begiratu behar zaio, bai. ●

Sylvia Plath, gas naturala eta suizidioa



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Londres, 1963ko otsailaren 11. Sylvia Plath poeta estatubatuarrek bere buruaz beste egin zuen, 30 urte zituela. Burua labean sartuta eta hiri-gasa arnastuta suizidatu zen. Besteak beste, Plathen kasua du hizpide Malcolm Gladwell kazetari eta hizlari kanadiarrak *Talking to Strangers* (2019) liburuan, eta, kasu hura aitzakiatzat hartuta, teoria bat proposatzen du: gas naturala hedatzeak suizidioen kopuruak behera egitea eragin zuela.

Hiri-gasak hidrogenoa, metanoa, karbono dioxidoa, nitrogenoa eta karbono monoxidoa zeuzkan. Gas naturalak, aldiz, ez du ia karbono monoxidorik. Beraz, hiri-gasak, etxean, armarik erabili gabe, odolik isuri gabe eta minik gabe hiltzeko aukera ematen zuen; gas naturalak, ez. Ingalaterran, 1960ko hamarkadan, pixkanaka, gas naturalak hiri-gasa ordezkatu zuen –etxe-tresnak berritzea eskatzen zuen aldaketak eta ordezkapena horregatik ez zen gauzatu egun batetik bestera–. Gladwellek liburuan jasotzen duen grafiko batean nabarmen ikusten da hamarkada horretan suizidioek behera egin zutela Ingalaterran, eta AEBetan, aldiz, ez, gas naturala ez zelako han hedatu. Grafiko berean ikusten da 1920ko eta, nagusiki, 1930eko hamarkadatan buru-hilketek gora egin zutela. Kazetariak hiri-gasaren hedapenari egozten dio igoera hori.

Gladwellen beste teoria batzuk bezala, hau ere zalantzan jartzen du hainbatek, kategorikoegia delakoan, beste faktore batzuk ez dituelako kontuan hartzen, esaterako, 1930eko hamarkadako igoeran 1929an piztutako krisialdi ekonomikoak izan zuen eragina. Baina Gladwellek bere teoriarekin esan nahi duena da, suizidatzeko joera dutenei aukerak “zailduz” gero, denbora eta egoera iraultzeko aukera ematen zaiela. Sekula ez dugu jakingo zer gertatuko zen Sylvia Plathek Londresen alokatutako etxean gas naturala instalatuta egon izan baltz. Lehenago ere beste bitan saiatu zen



LIFE

Sylvia Plath (1932-1963) hiri-gasa arnastuta hil zuen bere burua, Londresen gas naturala hedatzen ari zen garaian.

bere burua hiltzen –botikak hartuta eta auto-istripua eraginda–, eta hil zenean tratamenduan zegoen. Beste metodo batekin ahaleginduta lortuko zuen? Tratamenduan aurrera egiteko edo beste tratamendu egokiagoren bat lortzeko denbora irabaziko zuen?

SUIZIDIOAREN TABUA

Plathen kasuak, halaber, Werther efektua jartzen du ezbaian. Teoria horren arabera, pertsona ezagun bat suizidatzen denean eta komunikabideek horren berri ematen dutenean, suizidio kopuruak gora egiten du, imitazioz. Marilyn Monroe, Kurt Cobain eta Yukiko Okada japoniar abeslariaren kasuak erabili ohi dira adibidetzat. Hainbat ikerlanek babesten dute ideia hori, eta komunikabideek suizidioei buruzko in-

formazioa isilaraztera bultzatzen ditu. Baina horrek suizidioaren inguruko tabua areagotu besterik ez duela egiten dioenik ere badago.

Sylvia Plath ezaguna zen bere burua hil zuenean. Komunikabideek haren heriotzaren berri eman zuten eta BBCk erreportaje zabala eskaini zion kasuari handik egun gutxira. Eta, itxuraz, ez zen imitazio efekturik izan. Bizi zen artean, modu irekian hitz egin eta idatzi zuen bere arazo mentalei, tratamenduei eta suizidio saiakerei buruz. Hainbat aditurren ustez, horrek bai eragiten du nola baiteko imitazio efektua; gaiaz hitz egitera eta irtenbideak bilatzera eramaten ditu beren burua hiltzea pentsatu dutenei. Eta, hala, Plath, bere burua salbatzea lortu ez zuen arren, beste batzuk salbatzen lagundu zuen. ●

Historiak ez du barkatzen

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Baina guri dagokigu historiari jaramon egitea edo ez, zer begirekin erreparatu eta nola kontatu. Ez baita berdin 1522az hitz egitea Elkanoren balentriak kontatuz edo jatorrizko herrietan egindako sarraskiak azalduz. Ez baita berdin duela 45 urte ikurri-na legeztatzeke jende askok egindako borroka hitz egin edo ez. Badira hainbat manera kazetaritzan horrelakoak kontatzeko. Izan erreportaje luzeak, elkarrizketak... baina ARGIAk bilatu du beste formula bat, laburrean, modu didaktikoan historiak hitz egiteko: efemerideak. Azken urteetan egutegiaren atzealdeak bete dituzte eta webgunera egin dute salto orain.

Aspaldiko asmoa zen orain arte bildutako efemeride guztiak modu txukun batean sarean zintzilikatzeko. Azken hiru urteotan egutegiak bete dituzten datuak daude gaur egun www.argia.eus/efemerideen-kanala orrialdean. 1.100 efemeridetik gora. Lehen begiratuan eguneko efemerideak agertuko zaizkigu, baina badi-tugu sailkapen modu gehiago: urteka, hilabetea, egunka, gaika, urtemuga borobilak...

Eguneko historia zatitxoa irakurtzeak –dela egutegiari orria kenduta edo Telegram bidez– bere xarma du. Baina sarean osatutako bilduma honek beste ate batzuk irekitzen ditu. Herri honetan bonba, su, errauts eta hildakoen artean genbiltzan 1937 hartara jo dezakegu, ikusteko zer gertatzen ari zen beste herri batzuetan. Edo 1977 korapilatsuan zer ari ziren bizitzen hemendik kanpo eta zer gertatzen ari zen etxean.

ARGIA beti ahalegintzen da emandako kolpe bakoitzaren uhinak ahalik eta gehien zabaltzen eta aprobetxatzen. Denbora zeramaten pentsatzen nola baliatu egutegiko efemerideak webguneari indarra emateko. Topatu du formula txukuna Asier Iturralde informatikariak. 2022a hasi berria badugu ere, dagoeneko 2023ko egutegian dute burua eta laster ekingo diote datorren urteko materiala osatzeari. Hori bai, nahikoa informazio badugu oraingoz irakurtzeko, eta efemeride gehiago izateko 2023ko urtarrilera arte zain egotea tokatuko zaigu. Baina lasai, beti egongo da historia kontatzeko. Nola kontatzen den da gakoa. ●



Ongi etorri Komunitatera!

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!



“Egun euskaraz, independentiaz eta gaien ikuspegi anitzak jorratuz informazioa ematen duen aldizkaria delako. Balio sozialak bultzatzen dituelako”

Orioko Oihana

“Euskarazko kazetaritza independentea bultzatu behar dela uste dut. ARGIAk lan aparta egiten du. Aspaldi nuen pendiente harpidedun egitea”

Zuiako Oier

“Azken aldian aunitz irakurtzen ari naiz eta gustatzen zait ze gai jorratzen duzuen eta nola”

Lesakako Fernando



AGENDA

Bidean

Aurrera egin nahi duen irakaslearen dekalogo

Koldo Rabadan Izagirre irakasleak liburua aurkeztuko du Azpeitian:

🕒 Otsailaren 6an

📍 Azpeitia Karmelo Etxegarai ikastetxea

Zuloan

Bidaia bat AHT eta lan-esplotazioan barrena

Urko Apaolazak liburua hitz egingo du Iruñeko AI-TAV-oz egunean:

🕒 Otsailaren 19an 16:00etan

📍 Iruñea Plazara! gunean

EGUR ERRAUTSA? BARATZERA!



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Garai batean erreturak edo erra-loak nonahi egiten zituzten, soroetan eta baratzeetan edo luberria sortu behar zenean landareak kendu eta errez. Horrela “garbitzeaz” gain, errautsa sortzen zuten gero lur sail hori ongarritzeko. Gaur egun sukaldean edo urrutira gabe sortzen da egur errauts gehiena. Sukaldean bertan makina bat erabilera du errautsitako egur horrek. Baina gaur lurrean edo landareetan di-tuen erabilbideak jorratuko ditugu.

Hasteko aipatutako ongarrri lana. Errautsak ez du ez nitrogenorik ezta karbonorik ere, baina egurrak zituen mineral ugaritan aberatsa da. Gomendio orokorra da 100 metro koadroko 20 litro errauts zabaltzea. Lurraren azidotasuna baretzen du eta hori landare gehienentzat ona da; kontuz, lur azidozaleak diren landareei ez eman, adibidez patatari (*Solanum tuberosum*) edo ahabiari (*Vaccinium myrtillus*). Errauts horrek asko lagunduko die kaltzio eskasia sufritzen duten landareei: tomateari (*Solanum lycopersicum*), adibidez. Luar pilan ere tarteka errauts geruza txiki bat jartzeak luarrari onten lagunduko dio, baita errautsarekin nahastuta joan daitezkeen erabat erregabeko ikaz-tutako zatitxoek ere.

Bare eta barraskiloen haginkadetatik babestu nahi diren landareak errauts pilatxo batekin inguratzen dira. Bustitzen deno, berritu egin beharko da. Landareen gainera ere zabaldu daiteke, gero erraz garbitzen baita; lehorra badago, busti ondoren eman errautsa. Horrela, harrak, karkalardo arkakusoak, zorriak eta abar uxatuko dira, edo ez dira hurbilduko. Berdin oiloen zorriak uxatzeko, errauts bainuak hartzeko toki bat jarri beraien lumaera.

Izotza baldin badator, landare hozberak errauts pixka batekin estali. Hura den hostoetan izotza sortzea zailagoa da, tenperaturak gehiago jaitsi beharko luke.

Putzurik baldin baduzu eta ditzosozko alga berde itogarri horiek atzeratu nahi badituzu eta gainontzeko landareak indartu, tarteka koilarakada bat errauts nahasi 4.000 litroko.

Saguak dabiltzan tokietatik uxatzeko ere errautsa jartzen da. Baita txindurrietan ere, sarreran mordoxka bat jarri eta alde egiten dute.

Perretxikurik sortu nahi baduzu lastotan edo birrindutako kartoian, horiek esterilizatzeko errauts-uretan bustitzen dira. Errautsak beste perretxikoak atzeratzen ditu, eta guk hazteko jarri nahi ditugunei bidea eta bazka garbi-garbia utzi. ●



IRAKURLEAK GALDEZKA

Egun on Jakoba!
Egurra moztu ondoren zerrauts mordoa dut. Nola erabili dezaket hau baratze edo fruitu arbolentzako? Errautsaren funtzio bera du edo ez?

Eskerrik asko bihotzez

Irati

Zerrauts berriak tanino asko du eta landareak hil ditzake, landare ttikiak badira. Ez handiak, zuhaitzak, arbolak eta abar. Horregatik, handi horien azpian zabaldu dezakezu. Hala ere, nire iritzian, onena luartzea edo ontzea da. Nahasi simaurrarekin edo luarrarekin. Hilabete batzuk utzi ondo usteltzen eta gero erabili ongarrri gisa. Bakarrik ere utzi daiteke bazter batean eta luarra bezala landu usteldu arte.

Errautsa oso desberdina da. Errautsak karearen tankera handiagoa du eta haren antzeko helburuekin erabiltzen da. Zerrautsa, ongarritarako edo berdetan belarrik ateratzea nahi ez dugun tokiren batean erabil dezakegu. ●

JAKI

EGUNEROKOAN MENU OSASUNTSU ETA JASANGARRIAK ANTOLATZEKO TRESNA



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN



Olatukoop-en bueltan mugitzen diren hiru proiekturen interkooperaziotik sortu da Jaki: Talaioa, Tapuntu eta Lakari kooperatiben elkarlanetik, hain zuzen. Elikadura eta kontsumo arduratsua bultzatzen dihardu duela sei urtetik Zarauzko Lakari kooperatibak, eta Jaki izeneko tresna honen bidez bi alor horietan eragiten jarraitzea da haien asmoa. “Elikadura osasuntsua bultzatzea da helburua, horretarako asteko menuak eta errezetak antolatzen laguntzeko tresna eskainiz”, azaldu du Leire Udabe Aizpurua Jaki proiektuko ardura-dun eta Lakariko kideak.

AHOLKULARITZARAKO TRESNA

Aholkularitza eta formakuntza eskaintzen du Jaki proiektuak, egunerokoan etxeetan eta hainbat motako jantokietan menuak antolatzen laguntzeko. “Guk ez dugu dietetika edo nutrizio zerbitzurik eskaintzen, hau gehiago da plangintzari eta antolaketari begirako zerbitzu”, dio Udabek. Nola

egiten dute aholkularitza zerbitzu hori? Bada, orain arte presentzialki eta online egiten zuten, baina azken berrikuntza honek tresna digitalak baliatzen ditu: software librearen bidez, errezeten datu-base handi bat sortu dute Talaioseko kideek, elikadura osasuntsua eta garaian garaiko eta tokiko produktuak kontuan izanik.

“Zarauzko Lakariren dendan, sumatzen genuen jende batek, denbora faltagatik edo sukaldean aritzea gehiegi gustatzen ez zaiolako, menuen plangintzan eta antolaketan laguntza behar zuela”, azaldu du Udabek. Behar horri tiraka bururatu zitzairen tresna digital hau lagungarri izan zitekeela. “Bi menu ditugu aukeran: udaberri eta udakoa batetik, eta udazken eta negukoa bestetik”, zehaztu du. Urtean 80 euroren truke, eguneroko menuak antolatzeko eta errezetak kontsultatzeko tresna digitala izanen du eskura erabiltzaileak.

ELIKADURA KONTZIENTEA ETA JASANGARRIA

Etxeetan ez ezik, eskoletako jantokietan eta bestelako tokietan ere elikadura osasuntsua bultzatzeko tresna erabilgarria izan daiteke Jaki, bultzatzaileen ustez. “Elikadura osasuntsuaz ari garenean, bi abizen jartzen dizkiogu guk: kontzientea eta jasangarria”. Jasangarritasunaren alorrean, hurbilekoa eta agroekologikoa izateari garrantzia ematen diote, eta elikadura kontzienteaz ari direnean, berriz, horri eskaini beharreko denboraz eta arretaz ari dira. “Garrantzitsua da zentzuzko elikadura izatea, horri atentzioa jartzea eta gure gorputza entzutea eta begiratzeari”. Horrez guztiaz gain, menuak ekonomikoki eskuragarriak izatea ere bilatu dute.

Jaki.lakari.eus helbidean proiektuaren iguruko informazio guztia eta tresna digitala bera daude eskuragarri. Menu finak eta horietatik berriak sortzeko aukera, errezeten bilatzailea eta norberak bere menuak antolatzeko planifikazio tresna eskaintzen ditu, momentuz, eta horrez gain, hileroko elikadura osasuntsuari lotutako bideo bat igotzen dute. ●

EUSKAL HERRIKO AGENDA

www.bizibaratzea.eus



Bizi baratzea

Jakoba Errekondok hitzaldia eta landareen kontsultategia egingo du.

🕒 **Otsailak 12** 11:30ean.

📍 **Markina-Xemein** Abesu kalea 12.



Sendabelarre dakitena

Garbiñe Larreak liburua aurkezteaz gain sendabelarrei buruzko hitzaldia emango du.

🕒 **Otsailak 22** Ordua zehazteke.

📍 **Iurreta** liburutegian.

Zure herrian liburu hauen hitzaldia antolatu nahi?

Garbiñe Larreak sendabelarrez edo Jakoba Errekondok baratzeaz gakoak emango dituzten hitzaldiren bat antolatu nahi baduzu, idatzi bizibaratzea@bizibaratzea.eus helbidera eta berehala jarriko gara zurekin harremanetan.

BUELTAN DA STROMAE

Stromae musikari belgikarrak sona handia lortu zuen duela hamar urte inguru bere lehen bi diskoekin, baina kontzerturik eman gabekoa zen 2015etik. Zazpi urteko isilaldiaren ondoren itzuli da: haren ibilbidearen errepaso apetatsu bat aurkituko duzu artikulu honetan.

 **DANELE SARRIUGARTE MOCHALES**  **UNIVERSAL MUSIC**

Goikoa irakurrita dagoeneko igarriko zenuten arren, esan egingo dut: izugarri gustatzen zait Stromae. Bitxia da: orain arte ez dut publikoki adierazi harekiko sentitzen dudana debozioa, nahiz eta aukerak izan ditudan horretarako, azken urteetan hiruzpalau aldiz eskatu baitzikidate kultur gomendioak hedabideetatik.

Zergatik ez dut inoiz aipatu? Badut susmo bat: musikari famatua denez –oso-oso famatua– uste dut iruditzen zitzaidala jendeak ezagutuko zuela jada –jendeak ezagutzen du– eta uste dut iruditzen zitzaidala hain sonatuak ez diren merezimendu handiko artistak aipatzea dagoikiola norberari halako eskaerak iristen zaizkionean: *zer gomendatzen duzun jakitea merezi duela uste izan du norbaitek eta zerbait berria deskubritu beharko diozu, ba, gutxien-gutxienik, zuk esandakoei tartea egingo dion jendea*. Sinesmen inkontziente horrek gidatu nau orain arte.

Kontua da, ordea, kulturari buruz idazteko beste aukera bat suertatu zai-

dala eta, orain arte ez bezala, Stromae zenbat gustatzen zaidan esan nahi dizuedala. Badut aitzakia: disko berria aterako du malenkonia alaiaren izarra, etenaldi luze baten ostean.

LEHENIK ETA BEHIN, DANTZARA

2010eko udaberria da. Ez dakit non zaudeten zuek baina ni Gasteizko tabernetan nago aste barruan eta Elgoibarrekoetan asteburuetan, eta *Alors on danse* kanta jartzen duten aldiro jauzika hasten naiz. Ez da ohikoa Hegoaldera hala korik iristea baina tipo hau izar bilakatu da oso azkar. Itzulpengintzako ikaslea naiz ez alferrik, eta estribilloaz aparteko letrak dakarkit bigarren sorpresa, bideoak berretsia: parranda-erritmoarekin nahasturik, kritika zolia europar langile ertain alkandora zuriarekikoaren bizitza errutinarioari.

Lehen lana izanik etxeko markaren bi ezaugarri funtsezkoen haziak ikus daitezke jada hemen: bizitzaren gaziak dantzaren gozoarekin uztartzea eta musikaren aurkezpen publikoa asko zain-

tzea –bideoak, estetika, komunikabideetako emanaldiak–.

Mundu osora zabaldu da abestia. *Arrakasta meteorikoa* esamoldeak guztiz esajeratua ez dirudien kasu horietako baten aurrean gaude. 25 urte ditu Stromae izenez ezagutzen dugun Paul Van Haverrek.

NORBERE ERRO KARRATUAK

Ez du luze joko bigarren diskoa argitaratu arte: 2013an ikusiko du argia *Racine Carrée*-k, konsagrazioaren albumak. Lehen singlea, beste ereserki erritmiko bat: *Papaoutai*.

Nik jada amaitu ditut ikasketak, pertsona heldu baten moduan jokatzeko bide luzearen lehen zaplaztekoa ez dut usnatu ere egiten oraindik eta kanta horretan topatu dut Stromaerekiko miresmena eraikiaraziko didan lehen adreilu ukaezina, honako esaldi hau: *“Tout le monde sait comment on fait des bébés, mais personne sait comment on fait des papas”*. Alegia, ez dela gauza bera umeak egitea eta aita izatea.



Kanta horrek iradokitzen duenaz gainera datu biografikoak ere agertzen zaizkit arian-arian. Ama belgikarra du Van Haverrek, aita ruandarra. Amarekin –haren abizena du– eta beste lau anaia-arrebarekin hazi da, Bruselan, eta hamabi urte dituela jakin du aita hil dutela Ruandako genozidioan –hark albistea jaso baino hiru urte lehenago gertatu zen egiaz heriotza–. Gaztedanik interesatu zaio musika, eta YouTube ekoizpenari buruzko bideoak grabatzeari ekin aurretik –Stromae proiektuaren abiaburua– rap talde batean aritu da.

APARRETAN

Itzala handiagotzen diote lehen singlearen osteko kantek. Europako hainbat herrialdetako musika-zerrenden buru, kontzertu-bira luze eta jendetsuak, AEBetako merkatu ahalguztidunaren konkista.

Etxeko markaren zaleek ez dute desgainurik hartu *Racine Carrée*-rekin, guztiz kontrakoa: doinu dantzagarriak sortuz betiere, identitateari buruzko ikuspegi kritiko eta ironiko bezain interesgarria dakar *Bâtard* abestiak; *Carmen*-ek, berriz, sare sozialen mekanismo arriskutsuak salatzen ditu, Bizeten opera bertsionatuz gainera, eta eder-ederra da Cesarea Evora abeslari caboverdetarrari eskainitako *Ave Cesaria* omenaldi-kanta. Besteak beste.

BIDEOKLIPA ALA KALE-EKINTZA?

Ez da adibide bakarra, baina *Formidable*-k –bigarren singlea, *Papaoutai*-ren justu ostean argitaratua–, bikain erakusten du musikaren aurkezpen publiko zainduaz esandakoa.

Bikotekidearekin harremana eten eta gero nostalgiak jota mozkortu den gizon bati buruzkoa da abestia: haren istorioa azaldu ez ezik, huraxe gorpuztu du Stromae kalean zein bideoklipean. (Niretzat partikulariki, Stromaearekiko debozioaren bigarren adreiluua).

Bruselako erdigunera joan da goiz batez, tranbiaren geltoki-ingurura, edanda egoteko itxurak eginez. Handik ez oso urruti, guztia grabatzen ari da kameralari bat ezkutuan. Balantzaka dabil Stromae astegun-giroko jendearen artean, andenaren ertzean eseri da burumakur, 600etik 3.000 eurora bitarteko isunek galarazi nahi izaten duten moduan justu; telefonoa atera dute inguruan dauden herritarrek argazkiak ateratzeko gajoari: badakite nor den.

Polizia ere hurbildu da, atsegin; ea ondo dagoen, ea etxera eramatea nahi duen: badakite nor den.

Udaberriko goiz gris horretan Stromae mozkor-plantan ikusten ari direnek ez dakite, ordea, desamodio garai-kidearen garratzaz hitz egin nahi digula musikariak. Halako batean altxatu da, erretiratu da auzo hutsetara, eta irribarre egin dio kamerari.

Kaleratu osteko lehen hiru egunetan, hiru milioi lagunek ikusi dute bideoa: beste errekor bat.

*Uda honetan
Euskal Herrian
ere joko du
berriz denen
ahotan dabilen
Stromae*

ARRAKALAK. ETENA.

Gauza asko ez dira bat-batean gertatzen. Jada 2014an, bigarren diskoa atera eta urtebete eskas pasa delarik, bere ibilbidea tarte batez geratzeko nahia adierazi du artistak elkarrizketa batean. Bizitza normala egin nahi du berriro. Ulergarria iruditzen zait. Ziur aski ez da posible.

Handik gutxira Amerikara doa (AEB, Brasil), Asiara, Afrikara.

Arrakasta kopurutan zehaztearren: berrehun kontzertutik gora, milioi bat ikus-entzule.

Afrikako biran lehertu da egoera, 2015eko udaberrian: paludismoaren aurkako botika bat hartu ostean ondorez fisikoa eta mentala egin zaizkio eta urgentziaz itzuli da Belgikara. Nabarmena da kontuaren larritasuna, baina Ruandako hiriburu Kigalira bueltatu da artista urte bereko urrian, bira itxera. Kontzertu berezia da berarentzat; imajinatu genezakeen eta berak berretsi du: oso pozik eta oso hunkituta dago bere aitaren jaioterrian arituko delako.

“Zorra” kitatu ostean iritsi da benetako isilaldia.

STROMAE ITZULI DA: TOPA!

Ez pentsa mugarriz mugarri, denbora errealean, jarraitu nuenik hau guztia,

kontatu dizuedan bezala, ezta inondik ere. Neure kontu eta lantu propioak neuzkan garaian. Baina behin batean Googlara jo nuen, 2016-2017 ikasturtearen bueltan izango zen, eta danba. Ordutik aurrera bai, ordutik aurrera adi egon natzaie musikariaren gorabeheri.

Tantaka iritsi dira albistea. Beste artista batzuen musika ekoizten ari dela. Coralie Barbier estilistarekin eta Luc Junior Tam arte-zuzendariarekin arropa-sorta bat sortu duela, MOSAERT zigilupean. Elkarrizketa bat eskaini duela azken egitasmo horren aitzakian, eta, bide batez, azken urteetako arazo psikologikoez eta *burn-out*az mintzatu dela, alde banatara zituelarik Barbier emaztea eta Tam anaia.

Gauzak aldatu direla nabaritzen zaio eta itxura ona du.

Eta, halako batean, pandemiaren ubera luzean, 2021. urtea amaitzear dela, mezu bat iritsi zait; bideo baten esteka dakar: *Santé*. Kanta berri bat atera du Stromae. Dantzaren taupadarekin batera, hausnarketa, beste behin ere: gure ospakizunak sostengatzen eta ahalbidetzen dituztenek –garbitzaile, zerbitzari, zaintzaile– ez dute ospatzeko aukerarik.

ETORKIZUNARI BEGIRA: MULTITUDE

Arin zabaldu da Stromaearen itzulera-ri buruzkoa: elkarrizketak irratian, elkarrizketak telebistan. Horietako bat aprobetxatu du abeslariak beste kanta bat zabaltzeko: depresioa eta antsietatea hizpide dituen *L'enfer* soil eta ederra. (Gaian sakonduko ez dudan arren, ez dut aipatu gabe utzi nahi eztabaida piztu duela abestia TF1 frantziar kate publikoko 20etako albistegian aurkeztu izanak, halako zerbaitek lotura handiagoa duelakoan marketinarekin ezen ez komunikabideen xede informatiboarekin).

Hari nagusira itzulita, eta datorrenari dagokionez, martxoaren 4an aterako da *Multitude*, Stromaearen hirugarren diskoa, eta biran ibiliko da gero hainbat herrialdetan, aurtan zein 2023an. Uda honetan bertan, uztailaren 8an, Euskal Herrian joko du, Bilboko Kobetamendin.

Diskoaz ari, artistak adierazi du erritmo askotarikoak bilatu eta landu dituela, bere baitako jende-piloak islatu nahian. Momentuz iritsi zaizkigun bi singleek iradokitzen dute, dena den, orain arte zaletu gaituzten ezaugarriei ere eutsiko diela: giza bizitza osatzen duten pozari bezainbat minari. ●

DAVID LLOYD GASTEIZEN

Maskara baino askoz gehiago

V for Vendetta komiki ezagunaren sortzaileetako bat, David Lloyd, Gasteizen izango da otsail hasieran. Ignacio Aldecoa kultur etxeak eta Caracola Comicsek hiru eguneko jardunaldiak antolatu dituzte komiki horren inguruan.

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Aste honetan Gasteiz izango da *V for Vendetta*-ren zaleentzat erreferentziazko hiria: otsailaren 3an 19:00etatik aurrera Azucena Mongeren eta Joseba Gomezen hitzaldi batek aztertuko du David Lloyd lanak komikigintzaren historian nolako eragina izan duen eta haren ekarpenak gaur egungo perspektibatik begiratzen ahaleginduko dira. Hurrengo egunean Lloyd bera komikiak sinatzen ariko da 17:00etatik aurrera Caracola Comicsen, eta otsailaren 5ean 11:00etatik aurrera Ignacio Aldecoa kultur etxean hitz egingo du.

1982an Erresuma Batuko *Warrior* aldizkariaren enkarguz sortu zuen Lloyd-ek, Allan Moorekin batera, *V for Vendetta*: abentura distopiko bat, zeinak anarkista misterioitsu bat duen protagonista, etorkizuneko gobernu faxista baten aurka borrokan. Pertsonaia horren ezaugarrietako bat, komikian erabiltzen duen maskara, oso ezaguna egin zen 2011tik aurrera munduko hainbat lekutan egin ziren protestetan –Occupy Wall Street, M15– eta zenbait herrialdetan debekatu ere egin zuten hura janztea, Arabiar Emirerri Batuetan adibidez. Anonymous hacker taldeak ere sarritan erabili izan du.

Baina maskararen jatorria komikia baino askoz lehenagokoa da: 1605ean Guy Fawkes izeneko soldadu bat, beste zenbait lagunekin batera Ingalaterrako Jakue I.a erregea hiltzen saiatu zen, Londresko Lorden Ganbera lehertarazteko plan baten bidez. Salatari anonimo batek ohartarazita, Fawkes atxilotu, epaitu eta



2005ean egin zen *V for Vendetta*-ren zinemarako bertsioa.

urkamendiraino herrestatu zuten, baita hil ondoren haren gorpua zatikatu ere. Heriotza bortitz horrek ez zuen Fawkes aherentzaz ordea, eta ondorengo mendeetan behin baino gehiagotan agertu izan da, liburuetan, antzezlanetan, kantetan... eta komikietan. “Ez dakit zergatik gogoratu nintzen Guy Fawkesekin”, adierazi zuen Lloyd-ek *V for Vendetta*-ri buruz 2005ean egin zioten elkarrizketa batean. “Pentsatu nuen berak [komiko protagonistak] Guy Fawkesen antza edukitzea ondo egongo zela, antzerkitxurako zerbait emango ziola nolabait”.

1984an *Warrior* aldizkaria itxi zutenean, *V for Vendetta* seriea berriz inprimatu zen, kolorea erantsita DC Comics

etxearen bidez. Eta 1995ean istorio osoa nobela grafiko bakarrean bildu zuten. Horrek eta hamar urte geroago James McTeigue zuzendariak komikian oinarrituta estreinatu zuen filmak eman zioten behin betiko bultzada Lloyd-ek eta Moorek sortutako pertsonaia iraultzaileari.

Gaur egun protesta askotan –baita komikiaren espirituaren antipodetan dauden eskuin muturreko mugimenduen mobilizazioetan ere– haren maskara erabiltzea ohikoa bihurtu da. Gasteizko jardunaldiek emango dute bidea, agian, dagoeneko nahiko zarrakatuta dagoen sinbolo horretatik begirada jaso eta komikiaren beste balioei erreparatzeko. ●



LIBURUA

Irudimenak irribarrea



TXABI ARNAL

BERTA BEREZI
EDU ZELAIETA ETA
TXABI ARNAL
EREIN, 2021

XABIER ETXANIZ ERLE

Zelaietak eta Arnalek lau eskutara idatzitako hirugarren obra dugu hau, oker ez bagaude. *Torlojuak* izan zen lehena, *Tatxani Handiaren azken trukoak* etorri zen ondoren, eta orain *Berta Berezi* dakarkigute Gasteizko irakasleek.

Beren obretan umorea, hitz jokoak eta bizitasun handia erabili dute egileek, eta oraingo honetan ere gauza bera esan dezakegu; aldaketa, beharbada, oraingoan testua luzeagoa dela; ipuin bat beharrean neska berezi baten istorioak kontatzen baitizkigute.

Zazpi ataletan banaturiko lan honen hasieran Bertaren agerpena/aurkezpena kontatzen zaigu. Klaseko lehen egunean neska berri bat agertu da ikasgelan eta Bertak oso modu bitxian erantzungo dio irakasleak botatako erronkari: “Badakit agian zaila egingo zaizula orain,


bat-batean, zeure burua aurkeztea ikas-kideen aurrean, baina zerbait esan nahiko zenuke beste guztiok zu ezagutzen hasteko-edo?”. Jaio aurretik, amaren sa-beletik medikuarekin komunikatu zela azaldu eta, ondorioz, “NASAKo astronautek erabaki zuten Berta izena jartzea haien kaskoetan espaziora atera baino lehen. Berta, B handiarekin”.

Edozein irakurlek ikus dezakeen moduan Bertari ez zaio irudimenik falta, ezta bururatzen zaizkion istorioak botatzeko ausardia ere. Eta, hain zuzen, ezaugarri horiek dira Berta hain neska aparta, espeziala, ezberdina eta Berezia (B handiarekin) egiten dutenak; irakurleari bere ateraldiekin irribarrea sorrazten dion neska.

Aurkezpenaz gain beste sei atal dauzka liburuak, eta bakoitzak Berta eta bere lagunen istorio bat kontatzen du: pe-

rretxikoetara joan zirenekoa, petardoa eztandarazi zuten egunekoa edo igerilekuko salto lehiaketakoa; baina horien ondoan badira gertakari lasaigoak ere, musua emateko teknika azaltzen duena edo, bereziki hunkigarria gerta daitekeen “Jonen amonarena” izenekoa.

Liburua azkar irakurtzen da eta atalez atal irakur daiteke pertsonaiak berberak izan arren gertakariak ez baitute zeri-kusirik, ez bada poliki-poliki Berta gero eta hobeto ezagutzen joango garela, eta irakurleak gozatu egingo du neska-mutil kuadrilla honen istorioekin: eta horixe da, hain zuzen, amaieran, niri behintzat, liburuak utzi didan sentsazioa, ez duela amaierarik. Hots, azken gertakariaren ondoren hurrengoan zain geratzen garela. Agian egileen lau eskuak lanean ari dira dagoeneko Berta Berezi eta bere lagunen istorio berriak prestatzen... ●



MUSIKA

Mozart gehiago behar genuke



E. MORENO ESQUIBEL

OLBE-k antolatutako Mozarten *La clemenza di*

Tito opera. Euskadiko Orkestra. **Zuzendaria:**

Riccardo Frizza. Bilboko Operaren Abesbatza.

Zuzendaria: Boris Dujin. **Bakarlariak:** Paolo

Fanale (tenorea), Vanessa Goikoetxea (sopranoa),

Itziar de Unda (sopranoa), Daniela Mack

(mezzoa), Veta Pilipenko (mezzoa), Josep Miquel

Ramón (baritonoa). **Eszena zuzendaria:** Fabio

Ceresa. **Eszenografia:** Gary McCann. **Lekua:**

Euskalduna Jauregia. **Data:** urtarrilaren 22a.

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Beti da plazera Mozarten opera batez gozatzea. Salzburgoko konposatzailearen erreperitorio zabalean benetako harribitxiak daude, eta ez bakarrik musikaren ikuspegitik. Horixe da *La clemenza di Tito* obraren kasua, lan berezia baita, ikuspegi psikologikotik izaera introspektiboa duena eta musika-pasarte liluragarriak dituena.

Antzezlanak fikziozko pertsonaien amodiozko dramak kontatzen ditu, elkarrekin lotuta eta atze-oihal politiko batekin. Bitxia bada ere, Austriako Leopoldo II.a erregearen koroatzerako konposatu zen lana, baina Iraultza Frantsesean estreinatu zen. Hau da, monarkia absolutistak maila globalean bizi zuen une zail batean.

Bada, *La clemenza di Tito* operan, tradizio eta mito absolutisten kontrara, traizio egin diotenaren errukia erakusten duen enperadore batekin egin du topo. Tragedia itzel bihurtuko

zela zirudiena argi moral bihurtzen da Titoren ikuspegi zabalarekin, gehiago sinesten baitu bere inperioaren ongi komunean mendeku hotz eta iheskorrean baino. Gure garaietan guztiz aplikagarria den ikasgaia, inondik ere.

Obra eta haren esanahia kokatu ondoren, esan behar dugu Euskalduna Jauregian egindako eszenaratzea benetako arrakasta izan zela. Lehenik eta behin, Gary McCannen eszenografia bikaina nabarmendu zen, izugarri dotorea, argitsua eta antzinako Erromako giroa, oso estilizatu, erdi garaikide, erdi onirikoa den giroarekin nahasten jakin zuena. Errealitatearen eta irrealaren, iraganaren eta orainaren arteko fusioa zen. Nolanahi ere, edertasun bisual handikoa.

Ikuspegi bisuala alde batera utzita, bakarlari bikainak izan genituen. Bi emakumezko protagonistek, biak euskaldunak, interpretazio ederrak egin

zituzten. Vanessa Goikoetxeak, Vite-lliaren rolean, ahozko segurtasuna eta fintasuna erakustez gain –ertain eta grabe erregistro zoragarriak–, agertokian taxuz eta sinesgarritasun handiz mugitu zen. Itziar de Undak, Serviliaren paperean, bere tinbre beroa eta lan ona erakutsi zituen, nahiz eta ahots-proiektzio txiki samarra izan.

Bi gizonezko rol jorratu zituzten bi mezzosopranoek ere jardun ona izan zuten. Bai Veta Pilipenkok, Annioaren paperean, bai Daniela Mackek, Sestoren paperean, lan egokia egin zuten. Eta Paolo Fanale protagonistari dagokionez, eraginkortasunez eta fraseatze onez egin zuen Titoren papera. Hori bai, zailtasunak izan zituen agilitateetan. Duintasunez baina distirarik gabe salbatu zituen. Eta bere ahotsaren proiektzioa apur bat eskasa izan zen. Euskadiko Orkestrak delikatu eta soinu onez azpimarratu zuen lana une oro. ●



Betiko iraun dezala

 XALBA RAMIREZ  MUTRIKUKO ROCK KOLEKTIBOA

2021eko urriaren 16a. Lanetik 20:00etan atera, larunbata izan arren, eta lagun bat autoan pasako dela nire bila. Diabolo Kiwi *Uhin Galduak*, lan mundiala kaleratu eta Izpuran (Nafarroa Beherea) aurkeztuko du. Eta taldearen bi fan handienek bertan egon behar dute.

Hamar urte lehenago, ihes egin behar izan nuen Marlaskaren sarekada baten ondorioz, lau hilabetez etxe batean ezkutatuz. Izpurako areto horretan bertan agertu ginen Toastibarreren *Polizia porkeria* abestuz, 2011ko otsailaren 11n Euroaginduen kontrako kanpaina abiatzeko, garaztarren eta baxenabartarren sostengu eta maitasuna jasoz. Zorretan nago ordutik.

Areto berezi horretan, bada, elkartu dira Kuartz taldearen ostean, Julen Etxeberri, Allande Etxeberri, Amaiur Epher eta Leire Iribarne laukote zoragarria. Adjektibo kalifikatzaileak ez dira nahikoak deskribatzeko egin genuen dantza guztia. Zeinen pozik egin genuen dantza. Jabik dio urteetan ikusi duen kontzerturik hoberena izan zela.

Musika den-dena izan daitekeelako momentu batean.

Abenduan, hau idatzi nuen ARGIA: “Iribarne-Olhagaraitarrek urte ederra eman digute. Diabolo Kiwi, Habia eta Bloñ taldeekin urteko hiru disko berezienak kaleratu dituzte Leire eta Maia ahizpek, nork bere bidetik, musikaren iturri zabala hedatuz. 2022ak emango duenaren zain”. 2022 madarikatuak ekarritako bizitzaren putakeria hau ez zuen inork espero.

2022ko urtarrilaren 28a. Leire Iribarne Olhagarai auto istripu batean hil da. Hiru hizki besterik ez ditu ‘hil’ hitzak, baina nolako mina ematen duten entzutean, irakurtzean, idaztean. Leire moduko erraldoi baten ondoan, are mingarriagoak.

Egungo euskal kantarien artean talentudunenetakoa zen, ahotsarekin nahieran mugitzeko gai –ze bidegabea iraganean idatzi behar hau–. Hiatus Kaiyote, Nina Simone edo Ariana Grande zituena maitatzen, jazzaren iturritik edaten zuelako. Beraiek ere maitatuko zuketena

Leire, ezagutuz gero. Abesten zuenean, bere Olhagarai begi urdin erraldoiekin, bazenekien ongi pasatzeko tenorea zela, kokinkeria orok beste egun batean amaitu behar zuela.

Markotx Iribarne aitak onartu dit gaur: azkar joan da, baina indarrez ari zen bere ametsak betetzen, bere bidea urratzen. Gogotik ari zen bizitzen. Eta “hartua dena, hartua da, gogoratu”. Bere musika geratu da, eta “berarekin izandako uneak luzerako harribitxiak”. Indarra badute soberan Lasan, kuraia onena ere doakiela.

“Diabolo Kiwi Euskal Herriko talde hoberena da, edo izango da” ere idatzi nuen iazko irailean. Orain ezin dut besterik pentsatu. Leirek eta bere inguru guztiak duen bizipozaren laurdena bagenu egunerokotasunaren katean lotuta gaudenok toki ederra litzake mundua.

DBKren grooveak betiko iraun dezala, beraz. Eta Leirerenak zer esanik ez. Gogoratuko dugu gaur, bihar eta, batez ere, etzidamu. Eta, ahal dela, kokinkieretan. ●



Hitz gezidunak

* Gaia: Bizkaiko kostaldeko herriak

LATZ GEHIEGI DUENA BARAZKI MOTA		*		TXIRRINGA- REN JARLEKU		*		EUSKAL TELEBISTA NAUKA		ZELAN PILOTAN ARITZEKO TRESNA		IZAN EZIK BIZIDUN ZELULA- BAKAR
				*								
ZIKIRIO HIRITAR BIHURTU								TREBEAK, IAIOAK TONA				
										SAKATU ADITZAREN INFINITIBOA INTERJE- KZIOA		
BIHI, GARAU	MOLIBDE- NOAREN IKURRA SOSIK GABE UTZI			ADAM CLI						KONTSONAN- TE BIKOITZA *		
				*				EZ AR ZUBEROAKO UDALERRIA				IZATEKO ERA
BEGIRADA (ALDERAN- TZIZ) ZAKUR												
				BOKAL BIRIBILA BARAZKI HOSTOTSUAK				NAFARROAKO HERRIA Bai ZERA!				
MUSIKA ESTILO ZUZENDARIA- REN KARGUA				BEGIRUNE NEODI- MIOAREN IKURRA		OINARRIZKO EDARI BOKAL ERRE- PIKATUTA		ANPEREA ARNAS EZAK HIL		DIHOA ZILBOR		
												ENERGIA OMEN
ARALDEA, JENDALDEA TUA BOTATZEN								TXIKI BAT ERROMA- TARRA				
				TREBE, ABIL						LURRA IRAULTZEKO LANABESA		

Sudokua


BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO
ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3
KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

3	1		6	5		7		
5		6	8			2		
9	8	2			3	1		
	6				1		7	
	2		3	4	5		8	
4	3	9	7	6		5		
6		3	1				2	
7	4					9	5	
2	9					4		

5x5

ZE HARRETARA ETA GOITIK BEHERA,
HITZ BERA.

1. Isurkari mingots.
2. Eragozpen handiak dituen.
3. Malda handiko aldapak.
4. Errenkada, lerro.
5. Ekartzen nau.



EBAZPENAK

1. OZPIN
2. ZAILA
3. PIKAK
4. ILARA
5. NAKAR

6	3	7	4	8	5	1	6	2
7	4	8	2	3	6	9	5	1
6	5	3	1	9	4	8	2	7
4	3	9	7	6	5	1	2	
1	2	7	3	4	5	6	8	9
8	5	6	2	1	3	7	4	
9	8	2	4	7	3	1	6	5
5	7	6	1	9	8	9	5	
3	1	4	6	5	2	7	9	8

A	I	V	A	I	O	I	V	I	V	K	U	T
R	I	K	E	X	T	V	E	D	L	V	L	
E	I	T	Z	I	R	V	N	D	N	Z	U	Z
A	O	D	A	V	U	A						
Z	I	N	A						O	R	O	
I	R	U	R	I					S	O	V	
	E	M	E							E	L	V
T	T		E						O	M		
A	K	A	S	U	T	R	A	T	I	R	I	H
K	A	L	B	A	V	E	A	K	E	Z		
E	O	B	X	T	N	A	V	E	V	B	V	B
L	N	E		E	Z		B		G			

Laia Vidal

GINEKOLOGOA ETA OBSTETRA



ERDITZE ERRESPECTATUA ALDARRI

“Betidanik lagundu nahi izan diot jendeari, eta ttikitatiki nahi nuen medikua izan. Nerabezaroan gogoratzen dut nire burua irudikatzen nuela herriko mediku gisa. Gero, medikuntza ikasketak hasi nituenean eta espezialitatea aukeratzekoan ez nuen zalantzarik izan; nolabait errateko, obstetrizia egiteko jaioa nintzela sentitzen nuen. Gainera, nire izeba gertu izateak eragin zuen, bizitzaren hasieraz eta prozesuaz hitz egitean igortzen zuen emozioa ikusita, nik ere bide hori hartzea. Bertzalde, ez naiz sekula lasai gelditzen galderen zergatia azaldu gabe eta, horregatik, dibulgazioak nire ezagutza besteekin partekatze txoko bat eman dit, uste dut neurekoia litza-tekeela ez partekatzea”.

“Indarkeria obstetrikoa bere izenez ez izendatzeak diagnostikoa eta tratamendua atzeratzea eragiten du”

1980ko hamarkadan etxean eta uretan egindako erditzeen erreferentea izan zen Adela Vidalen iloba da Laia Vidal (Palafrugell, Herrialde Katalanak, 1988) dibulgatzailea, ginekologoa eta arrisku handian espezializatutako obstetra. Sistemaren barnetik ari da erditze errespetatuaren alde lanean.

 SAIOA BALEZTENA  JORDI BORRÁS

Indarkeria obstetrikoa existitzen al da?

Noski, ez dut inongo zalantzarik.

Zer da?

Emakumeek haurdunaldian, erditzean edo erdiondoan, akzioz edo omisioz, modu bortitzean jasaten duten praktika edo jokaera oro da indarkeria obstetrikoa. Praktika horiek, kontzientek izan edo ez, emakumeen eskubideak urratzen dituzte. Funtsean, gizartean orokorrean, eta medikuntzan zehazki, ezarrita dagoen matxismoan eta paternalismoan errotzen da indarkeria obstetrikoa. Historikoki emakumeen emozioak eta bizipenak gutxietsi dira obstetrizian, infantilizatuz eta erabakiak hartzeko duten eskubidea urratuz. Ondorioz, interbentzionismo bortxatua eta beharrezkoak ez diren edo baztertuta dauden praktikak erabiltzen jarraitu dute, sarri indarkeria fisiko eta emozionala eraginez.

Osasun langileok ere ba al zarete indarkeria obstetrikoren biktimak?

Indarkeria obstetrikoa ere bada erakunde indarkeria eta, ondorioz, bai, osasun langileok ere bagara indarkeria horren agerpena ahalbidetzen

duen sistemaren biktimak. Behar bezala artatzeko langile eskasia, *one-to-one* izenarekin ezagutzen den eta emakumeek behar duten babes pertsonalizatua ezin eskaini ahal izatea, kontsultetan dugun denbora falta, espazio eta ohatze duinik ez egotea edo asistentziaren lan-karga dira, bertzeak bertze, indarkeria obstetrikoren zeharkako ondorioak.

Aldiz, Sendagileen Elkargo Ofizialen Kontseiluaren Batzar Orokorrak “indarkeria obstetrikoa” terminoa erabiltzearen aurka zegoela azaldu zuen udan.

Indarkeria obstetrikoa bere izenez ez izendatzeak, medikuntzan gertatu ohi den bezala, diagnostikoa eta tratamendua atzeratzea baizik ez du eragiten.

Hainbat profesional erabaki horren aurka agertu zineten. Sistemaren errailetatik egiten duzu indarkeria obstetrikoa ezabatzeko lana. Zer da borroka horretan zailena?

Zalantzarik gabe, obstetra gisa, zailena begiak ireki eta indarkeria obstetrikoa existitzen dela onartzea izan zen. Hasieran, hesgailua jarri nahi nuen aurpegian eta aitzakiak bilatzen

"Emakumeak bere erditzearen nondik norakoak aukeratzeko dituenen bakarrik bermatu ahal izango dugu erditze errespetatua".



nituen, edo ongi egiten genituen gauzak azpimarratzen saiatzen nintzen. Baina behin hesgailua kenduta ez dago atzera bueltarik. Indarkeria hor dago, eta orduz geroztik ikusi dut presente dagoela gure egunerokoa.

Emakumeen kontrako indarkeria mota hau ezabatzeko lehen pausoa osasungintza publikoko langileek onartzea da. Zergatik dago defentsiban jartzeko joera oraindik?

Gutako anitz "heroiak" edo "salbatzailak" garen sistema batean formatu garelako. Ikusi bertzerik ez dago COVID-19aren lehen olatuan osasungintzako langileok nolako tratua jaso genuen. Eginkizun hori jartzen dizutenean eta gerora zerbait gaizki egiteagatik salatzen zaitutenean, gainera indarkeria hitzarekin, erasotuta eta minduta senti zaitezke. Batez ere, erran bezala, praktika anitz oinordetzan hartuak eta inkonfiantziak direlako.

Pandemiaren aitzakiarekin haurdunaldietan eta erditzeetan hamaika eskubide urratu dira. Nola bizitu duzu?

Gainezka dagoen osasun sistema bat azpiegitura txarrarekin eta zalantza zientifikoak beteta dagoenean agertoki ezin hobea da eskubideen urraketatara. Ziurtasun ezak dakarren beldurra dela eta denak balio du. Testuinguru horretan erditze errespetatuaren alde lanean ari garenotako anitzek behar bezala egiten ez zena salatu genuen. Eta harrotasunez oroitzen dut Kataluniako zentroetan lan fina egin genuela, adibidez, erditzean bikotekideak sartzen ahalbidetuz, amaren eta haurtxoaren binomioa sekula hautsi gabe; ez genuen indukzio edo zesarea elektiboen protokolorik aldatu, amagandiko edoskitzearen tasa handitu genuen eta alde zaurerik altak sustatu genituen, emaginen bisitak etxetan eginez.

Indarkeria obstetrikoa pairatu duten emakume anitzek etxean erditzea erabakitzen dute gero. Zer deritzo?

Horretarako formatuta eta akreditatuta dauden emaginek artatuta egiten badute, frogatuta dago etxean erditzea segurua dela eta emakumearen esperientzia hobeki asetzen duela kasu anitzetan.

Zenbateraino bermatu beharko luke osasungintza publikoak etxean erditzea?

Politikoki zein ekonomikoki hori ahalbidetzeko zirikituak ez ditut ezagutzen, baina sistemarentzako egingarria bada, zalantzarik gabe, aukera bat izan beharko litzateke. Bertze hainbat herrialdek aukera hori bermatzen dute, eta urte anitzetako ebidentzia dago arrisku guttiko erditzeetan alternatiba oso ona dela ondorioztatzeko.

Zein da erakunde publikoen erronka nagusia erditze errespetatuari dagokionez?

Batetik, erakunde publikoek profesionalen formakuntza sustatu behar dute, ez bakarrik eremu zientifikoan eta teknikoan, baita emozionalki eta psikologikoki ere. Gainera, behar horiek asetzeko bateragarriak diren lan espazioak sortu behar dira. Eta noski, arta emakume bakoitzaren neurrira egina izateko baliabideak behar ditugu. Profesional sentsibilizatu eta formatuak behar ditugu. Emakumeak bere erditzearen nondik norakoak aukeratzeko dituenen bakarrik bermatu ahal izango baitugu erditze errespetatua. ●

Traje egokia aukeratzeaz

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Okasio bakoitzerako ze traje jantzi erabakitzea ez da garrantzi gutxiko kontua, batez ere helburua zerbait saltzea denean. Bezeroaren aurrera beti atera behar da onartutako estandarrek agintzen duten maneran, baina klaro, ea nork asmatzen duen zer demontre esan nahi duen horrek mundu honetan, zeinean ohitu garen eztabaidatzera zer den onargarria eta zer onartezina minutuko 87.563 txiotan.

Geroz eta zailagoa da dena. Traje bat aukeratzeak eragin dezakeen estresa.

Zerbait saltzeaz ari gara gaur beraz. Alegia, politikaz. Alegia, eskariak –eta ez eskaintzak– agintzen duen merkatu batez.

Aste honetan salgai jarriko da produktu berri bat edo, bueno, produktuaren bertsio berri bat behintzat: Espainiako lan erreformaren erreforma –aurretik “Rajoyren lan-erreforma bertan behera uztea” gisa ezagutzen genuen paketea– eta iruditzen zait merkantzia horrekin pasa dela Eurovisioneko hautagai espainiarrarekin bezala: ez dela espero zena. Produktuak ez ditu ase sortutako es-

pektatibak. Ez dagoenez Tripadvisorren antzekorik gauza hauetarako, zenbait erabiltzailek idatziko lituzketen komentarioak asmatzeko aukera paregabea daukagu: “MINISTRO ESKASA, EZ EMAN BOTOA: legatz derogaturia eskatu nion eta panga patronala atera zidan”.

Baina iritzi asaldatuak ere ez du aldatuko dilema fundamentalak: trajea. Trajea aukeratu behar da. Eta iruditzen zait EAJk azken asteetan bi atera dituela bere armairu amaigabetik. Produktua saltzekotan, prest dauka Armani bat, urdin iluna, gorbata diskretu batekin. Konbinazio serioa, klasikoa, instituzionala, transmititzen duena *bisnes* hau ere ondo aterako dela. Ezetz esatekotan, zerbait informalagoa ere badu ordea: alkandora koadroduna maukak bilduta; eta sorbalde bultza lotuta Lacoste aitaxo-jertsea, lehen erabiltzen zena Alderdi Egunetan “independentzia” oihukatzeko eta orain ondo ematen duena “Euskadiko lan-harremanen esparrua” eta “patronala bere lekuan jarri” bezalako gauzak esateko –Ortuzarrek pasa den astean sindikalisten eremu semantikoa egin zuen arrantzan–.

Asuntua arropa juridikoak aukeratzea baldin bada berriz, eklektizismoak agintzen du eta lege-proiektuak dirudi aukera egokiena. Alegia, *sí alla vita, sí all'amore* eta abar esateko trajeari erans-tea emendakinetan ikurrinaren koloreak dauzkan konplementuren bat. Nire bi xentimoko ustea da horren antzeko zerbait izan daitekeela ostegunekoaren zeren, alde batetik, bezero nagusiak –alegia, Confesbaskek– eskatu du uzteko alde batera “debate politiko eta filosofikoak” eta onartzeko onartu behar dena behingoz; baina, bestetik, konbenio autonomikoen defentsak jada lortu du gauza salgarriak produzitzea –Bizitzeko Gutxieneko Errenta transferitutako duela zin egin du Moncloak– eta negozio guztiek babestu behar dute beren burua konpetentzia-tik. Eskumen sozialak EAera ekartzeko baiezkua: agian hori da Sabin Etxearen *outfit*-a tratatu hau ixtera ateratzeko.

Egiten dutena egiten dutela, iruditzen zait gauza hauek serio hartzeagatik irabazten dutela beti: traje bat okasio bakoitzerako. Enperadorea istorio honetan nahi duzuen izango da, baina ez dago biluzik. ●





BABESTU INDEPEN DENTZIA

Babesa duenak galdera berriak
sor ditzake. Egin dezake desberdin.

Babesa duenak zaindu dezake elkar.
Eragin dezake txikitik.

**Kazetaritza independentea
izan dadin, jendearen
babesa beharrezkoa da.**

argia.eus/eginargiakoa

komunitatea@argia.eus | (+34) 943 37 15 45

GURE INGURUNEA ZAINZEKO, BADITUGU AKTIBISTAK.

GORKA IRAZABAL HIDALGO BEZALAKOAK.



EUSKADIKO
ITUN
BERDEA

Izan ere, bere jarduerarekin
kalitatezko jaki osasuntsuak ematen dizkigu
eta lurralde oreka babesten laguntzen digu.

Euskadiko Familia Nekazaritza.
Elkarrekin, mundu hobe bat landuko dugu.

EUSKADI



Familia Nekazaritzako
Batzordea
Comité Regional
de Agricultura Familiar

Decenio de las
Naciones Unidas de la
**AGRICULTURA
FAMILIAR**
2019-2028

 **hazi**



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO